

JOSEBA IRAZOKI

«Esan didate nire musika
ez dela sobera erraza, eta
lore bat iruditu zait»



Veronica Yuquilema

Quiton, kitxua
komunitatea
batu nahian

Galizia

Burujabetzaren
bidean, iparra
berreskuratze
ahaleginean

Koldo Izagirre

«Arte guztietan
barandiarankeriak
eta gauza etnoak
itzuli dira»

Kilian Jornet

mendi korrikalaria

«Jendeak
ez ninduke
imitatu behar
horren ondorioak
ezagutu gabe»

Jon Mirena Landa

zigor zuzenbideko
irakaslea

«Presoen bloke
izaerak desagertuz
joan behar du»

Net Hurbil

Arrisku handiko
operazioa
Fukushiman

Azken

IKASLE DANTZA

AZAROAK 16 · ILUNBE DONOSTIA

18:00tan #25urte ekitaldi nagusia

ZE ESATEK!
BAD SOUND SYSTEM
GOSE
BETAGARRI
+KOLABORAZIOAK
DANK · AMAIUR · EDAN · ANGER · DES-KONTROL ·
MALDAN BEHERA · ON · FRANCIS · ...
LAS TEA PARTY DJS

AURREZ | BERTAN
13 | 18

@IAbertzaleak | azkenikasledantza.tk

Ikasle Abertzaleak

25
URTE





Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Kortá, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko azaroaren 10a, 2.390. zenbakia

ASTEKO GAIA

GALIZIA Bidea aurkitu nahian. UNAI BREA / 4

PERTSONAIA

JOSEBA IRAZOKI: «Internetekin, industria ez da beharrezkoa musikarentzat». SUSTRAI COLINA / 9

GAIK

KILIAN JORNET: «Korrika zoazela lo geratzea ez da zaila, 40 ordu daramatzazunean». MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 14

DAMUTUKO ZAIZU(T)E! Txapelketa umore kolpeka. ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 18

IRITZIAREN LEIHOA

SARIA GORA ETA BEHERA MIKEL ZURBANO / 20

BETIEREKO KARTZELA IÑAKI ODRIÓZOLA / 22

SINESGARRITASUNA DA NEURRIA IÑAKI ANTIGUEDAD / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTA / 21

TXANDAN Barkaezinak. ITXARO BORDA / 22

ZIRTA Idazlearen egiak. ANGEL ERRO / 24

ERDIKO KAIERA

KOLDO IZAGIRRE: «Donostiak ez daki zein diren bere problemak». GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 26

BADA TEATROA Gure historiari keinu eginez, umore zentzugabea dakar *Traganarru* obrak. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 30

LITERATURA IGOR ESTANKONA / 32

MUSIKA MONTSEERRAT AUZMENDI / 33

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34

ALEA Joxan Lizarribar gogoan. MYRIAM GARZIA / 35

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

JON MIRENA LANDA: «Beste bake prozesuetan bezala, gurean ere egia da gakoak». MIKEL ASURMENDI / 39

VERONICA YUQUILEMA: «Hirian herri indigena aldarrikatzen ari gara». IURE EIZAGIRRE / 43

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Egin dezagun otoitz Fukushima pizina husten asma dezaten. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Bidea aurkitu nahian

Azken hamarkadako noraeza gainditu nahi du galiziar nazionalismoak. PP “Espainia gehiago” politika ezartzen ari den honetan, burujabetzaren bidean iparra berreskuratzeko ahaleginean dabil abertzaleen erreferente nagusia den BNG. Estatuko giroa dute alde abertzaleek. Aurka, barne zatiketa eta ahuldade historikoa.

| UNAI BREA |

KATALUNIako HAIZEEI esker independen-
tziari buruzko eztabaida puri-purian dagoen
honetan, indar bi ari dira lehia bizian Espai-
niako Estatuko beste muturrean, Galizian.
Ez dira indar sortu berriak, batzuen eta bes-
teen posizio tradizionalen areagotzea baizik.
Batetik, inoiz baino espainiarrago ageri da
PP. Fragaren garaiko disimuluak eta jarrera
leunagoak albora utzita, popularrek galiziar
abertzaletasunarekiko diskurtso oldarkorra
darabilte, eta gaitz erdi diskurtsoa besterik ez
balitz. PP, nola Santiagon hala Madri-
len, gogoz ahalegintzen ari da
hirugarren arazo nazionala
sortu ez dakion. Besteak
beste, “galiziar terroris-
moa” kontzeptu asma-
tu berriaren bitartez.

Ring-aren beste
aldean galiziar nazio-
nalismoa dago. Haren
erreferente historiko
nagusia, BNG, bere hasta-
penetako jarrera erradikale-
tara itzultzen ari da, eta are
gainditzen. Ez burujabetzari
dagokionez bakarrik: ezkerre-
ko planteamenduetan ere
atzean utzi du hain aspaldikoa ez den
garai bateko anbiguokeria, krisi tes-
tuinguruak lagunduta bestalde. Azken
lau urteetan emandako prozesua da,
askoren esanetan aurtan azkartua.

Besteak beste, independentzia-
ren aldarrikapenari eutsi dioten
talde txiki baina oso aktiboengana
hurbildu da BNG. “Independen-
tzia” hitz labaina da Galizian, eta
orain arte behintzat oso gutxik txer-
tatu dute normaltasunez beren dis-

kurtsoaren muinean. Alderdi abertzale han-
dienak, alegia, BNG eta Anova jaio berria,
beste terminologia bat erabiltzearen aldekoa-
goak dira. Hala, Galizian normaltasun osoz
egiten dute, bai batzuek eta bai
besteek, independen-
tismoaren eta nazio-
nalismoaren arte-



SERMOS GALIZA



BNG-CC BY SA



ko bereizketa. Errealitatea aurreko esaldi pareak aditzera ematen duena baino askoz konplexuagoa da, ordea.

Independentzia hitza ez da ondo saltzen

Lehenbizi, argitu behar da bai BNG bai Anova barruan independentismoa egon badagoela, eta ez sentimendu lauso baten gisa, egitura zehatzetan baizik. Azalpen teknikoekin alferrik ez luzatzearen, eta zehatzasunaren kalterako bada ere, esan dezagun alderdi biek onartzen dituztela militantzia bikoitzak eta antolatutako barne-korranteak. Horietako bat BNGren barruko MGS (Movemento Galego ao Socialismo) da, ofizialki 2009tik existitzen dena. Rafa Vilar zuzendaritzako kidearen esanetan, BNGk jatorrizko planteamendu abertzale eta ezkerrekoetatik aldentzeak ezinegon eragin zuen hainbat militanterengan, eta horrexek bultzatuta sortu zuten MGS.

“BNGk burujabetzaren auziari bizkarra eman eta estatutuaren markora eramana zuen diskurtsoa —dio Vilarrek—, eta begenekien, Ibarretxe Planarekin eta Kataluniako Estatutarekin gertatutakoak ikusita, bide horretatik ez ginela inora iritsiko”. Vilarrek aipatutako garaian, bazirudien BNGtik kanpoko eta indar gutxiko zenbait siglaren pean (Nós-UP, Causa Galiza, gaur egun Anovan dagoen FPG...) baizik ezin zitekeela aurkitu independentziaren aldeko galiziarrik, “baina guk argi geneukan gurean zegoela independentziazale gehien, ezkutuan egon arren”. Hitzak oraindik tabu kutsua dauka, baina esan daiteke MGSren jaiotza ez dela alferrekoa izan, BNGk burujabetzaren aldeko diskurtsoa azkartu baitu zeharo.

Hain zuzen, “independentzia, independentzia” oihu artean esan zituen Xavier Vencek, BNGko bozeramaile nazionalak, kargu

Xose Manuel Beiras (ezkerrean), eta Xavier Vence (eskuman), Anovako eta BNGko bozeramaile nazionalak hurrenez hurren. Galiziako bi alderdi abertzale handien arteko aldea, gaur egun, lan esparrua Estatu osoa duten ezkerreko indarrekiko (zehazki, IUrekiko) harremanak dira. BNGrentzat, Estatuko alderdiekin hautagaitzak eratzea galiziar nazionalismoa ahultzea da. Beirasek dio ea okerragoa ez ote den hainbat udaletan, Lugoko Aldundian eta (2005-2009 epean) Xuntan PSOErekin batera gobernatzea. Bien arteko aldeak gaindiezinak dira gaur-gaurko.

hori eskuratu ondorengo lehen hitzak, joan den martxoan egindako batzar nazionallean. *Praza pública* agerkari digitalaren kronikaren arabera, aspaldi ez zen lelo hori entzuten BNGren biltzar batean. Alta, ez da egunero erabiliz higatu beharreko hitza, Vencek berak dioskunari erreparatuta behintzat: “Galizian, nolabait esateko, intentsitate txikiko abertzaletasuna daukagu, eta aldarrikapenak ez dira adierazten Katalunian bezain esplizituki. Hautesle abertzaleen zati handi batek, izan BNGkoak izan beste alderdi batekoak, ez du beren burua independentistatzat. Galizia dute gogoa, haren nortasunaren eta interesen alde bozkatzeko dute, baina ez dute independentzia gogoan. Beste herrialde batzuetako abertzaleekiko desberdintasun nabarmena dago”. Honenbestez, BNGk nahiago du burujabetzaz hitz egin independentziaz baino.

Ahuldadearen arrazoiak

Galizian abertzaletasunak Euskal Herrian eta Katalunian baino indar txikiagoa izateak hainbat faktoreri zor zaio. Batetik, Galiziak denbora luzeagoa darama Espainiaren menpe: “Euskal Herriak XIX. mendean galdu zituen foruak, eta Kataluniari 1714an kendu zizkion eskubide nazionalak. Gu, aldiz, 1492tik gaude espainiar koroaren kontrolpean”, azaldu digu Carlos Morais, Nós-UP (Nós-Unidade Popular) erakunde independentistako kideak. “Bigarrenik —gaineratu du—, elite galegoen zati bat Espainiatik ekarritakoek ordezkatu zuten, eta horrek buru gabe utzi zuen lurraldea. Agintzen dutenek beti egin diote uko proiektu politiko propioa garatzeari”. Horrek azaltzen du galiziar abertzaletasunaren berezitasunetako bat: ezkerrekoa da ia guztiz.

Burgesia abertzalerik ezak ez dio mesedetik egin Galiziako nazionalismoari. Hala uste du behinik behin Suso Seixok, CIG sindikatu

abertzaleko idazkari orokorrak: “Eskuineko abertzaleetasuna egoteak lagunduko luke jendartean pisu handia daukaten sektoreengan kontzientzia pizten”. Bide batez, gaineratu dezagun, indarra kenduko lioke PPri.

Burujaletaren alde indarrak bildu nahian

Harro dabilta popularrak Galizian, badabil-tzanez. “Sekula baino indar handiagoz ari zaiz-kio oldartzen galiziar tasun jitea duen orori –dio Seixok–, Fraga-ren aroan behintzat itxurak-edo egiten zituzten”. Aipatzekoak dira behin 2009an Xuntan bote-rea berreskuratuta galiziararen aurka hartu zituzten neurriak, eta kalean eman zitzaizen erant-zun jendetsua. Abertzaletasu-naren mesederako erabil zite-keen indar erakustaldi hura, alabaina, alferrik igaro zen. “Galdutako aukera”, iritzi dio Paula Rios, Mulheres Nacionalistas Galegas elkarte feminista eta independentistako kideak. “Orduko indar hura talde abertzaleen arteko zatiketaren zuloan galdu zen”, kexu da Rios.

Zatiketa gaingitu eta burujaletaren alde indarrak biltzeko asmoz sortu berri da Galiza pola Soberania plataforma (GpS), Vitor Vaqueiro sortzaileetako batek adierazi nahi izan digunez. “Naziotasun sentimenduei buruz egin ohi diren inkesta horietan, %30 inguruko portzentaje batek erantzuten du abertzalea

Agintzen dutenek beti egin diote uko proiektu politiko propioa garatzeari. Horregatik, galiziar abertzaletasuna ezkerrekoa da ia guztiz

dela”, dio Vaqueirok. Ez da hori, ordea, hau-teskundeetan islatzen den indarra. “Absteni-tzen diren horiengana iritsi nahi genuke, ez bozka dezaten, burujaletaren alde mobilizatu daitezten baino”. Alderdi politikoen ohiko hiz-keratik aldendu nahi du GpS-k. Agenda politi-kotik kanpo dauden nortasun elementuei arre-ta eskaini eta galiziar iruditeria indartu nahi dute. Esaterako, Apalpador, Olentzeroren gali-ziar baliokidea.

Nolanahi, GpS-k agerikoa du izaera politikoa. Haren sorrera manifestuak garbi dio zein den ekimenaren azken helburua: errepublika galiziar independen-te bat eratzea. Hain justu, BNGk berriki onartu duen xede berbe-ra. Ez da hain harritzekoa ere.

GpS-n banakoez hartzen dute parte, eta ez elkarte edo alderdiek, baina hein handi batean BNGk sustatutako plataforma da. Esan behar da, bestalde, abertzaletasunaren esparru gehientsuenetako kideak daudela ber-tan, baita independentismokoak ere. Hutsune ikusgarriena Anovako kideena da.

Zergatik ez Galiza pola Independencia?, galdetu diogu Vitor Vaqueirori, hark platafor-maren jomuga estrategikoa galiziar estatu bat dela azaldu bezain laster. Batetik, Xavier Ven-cek bezala, galiziar jendartearengana jotzerako-an hitzen aukeraketa tentuz egiteko beharra aipatu digu. Baina beste ikuspuntu bat gainera-

Resistencia Galega, existitzen ez den talde armatua

90EKO HAMARKADAREN hasieran Exército Guerrilheiro do Povo Galego Ceive (EGPGC) desegin zenetik ez da egon Galizian era-kunde armatu antolatuturik –Estatu-ko segurtasun indarrak alde batera utzita, noski–. Haatik, indepen-dentziaren aldeko ekintza arma-tuak, sekula ez pertsonen aurkako-ak, EGPGCren aurretik zein ondoren egon dira.

XXI. mendea ez da salbuespena izan. Hainbat lehergailuk eztanda egin izan dute Galizian azken urteotan, besteak beste alderdi politiko espainiarzaleen egoitzetan, eta ekintzon erantzukizuna aldarri-katzeko idazkietan Resistencia Galega leloa, edo sinadura, nondik begiratzen den, erabili izan da. Izen hori duen erakunde baten

zantzurik ez dago, baina PP baliatzen ari da mozioak aurkezteko, bai Espainiako Senatuan, baita Galiziako parlamentuan eta uda-letxeetan ere. Ohiko bidetik, terro-rismoa gaitzestea eskatzen du Alderdi Popularrak. BNG ez da jokoan sartu eta mozioen aurka bozkatzeko ari da. Bide bera ari da urratzen AGE, Anovak eta Esquerda Unidak Santiagoko par-lamentuan daukaten koalizioak. Garbi esan dute batzuek zein bes-teek: Galizian terrorismo arazo bat dagoela esatea astakeria hutsa da.

Momentuz, kontua ez da mozioetatik harago joan, baina komeni da gogoratzea Espainiako Estatuan Alderdien Lege bat dagoela, Euskal Herrirako *ad hoc* sortua izanagatik PPri primeran

etor dakiokiena orain Galizian. Hain urrun joango ez balira ere –BNG eta Anovako ordezkariak lasai agertu dira mehatxu horreki-ko– Resistencia Galegaren aitzakia galiziar abertzaletasuna, eta zehaz-ki independentismoa, “hots, pen-tsamendu hutsa” kriminalizatzeko baliatuko dutela salatu du Ceivar (Askatu, galegoz) errepresioaren aurkako elkarteak. “Espainiako Entzutegi Nazionalak irailean lau militante independentistari ezarri-tako neurritz kanpoko zigorrak ere adierazten du PPren Gobernu-a noraino dagoen bere estrategia gogortzeko prest”. Horrexegatik hain zuzen, izen-abizenak ezku-tuan gorde nahiago izan du gure-kin berba egin duen Ceivarreko kideak.



WWW.PRIMEIRALINHA.ORG

Nós-UP (Nós-Unidade Popular) erakunde independentistaren manifestazio bat.

tu du: “Hortxe dituzu Grezia eta Portugal, barbarako, independente bai baina une honetan inolaz ere burujabeak ez direnak. Esan nezake burujabetza kontzeptu zabalagoa dela, eta independentzia bere barruan hartzen duela. Alderantziz ez”.

Anova vs gainerakoak


Xose Manuel Beiras buru duen alderdia iaz sortu zen, BNGtik alde egindako zenbait sektorek eratuta. Orduetik, galiziar abertzale-tasunaren zatiketa erakusgarri behinena izan da BNGren eta Anovaren arteko desakordioa. Edo, gauden-gaudenean, Anovaren eta gainerako guztien arteko desakordioa; kontuan hartu behar baita gaur egun BNGtik askoz hurbilago sentitzen direla orain gutxi arte epelkeria autono-

“AGEren botoen %60tik gora abertzalea izan zen. Estatuko indarrekin ez batzeko tradizioa hautsi izanak ez zigun botorik kendu”

Xose Manuel Beiras,
Anovako bozeramailea

miazalean galduta egotea aurpegiatzen zioten erakunde independentistak. Edozein kasutan, denek gogor kritikatzten dute Anovaren bekata: lan esparrua Estatu osoa duen alderdi batekin elkartzea Galiziako azken hauteskundeetarako. Zehazki, Esquerda Unidarekin (UE), hau da, Izquierda Unidaren galiziar atalarekin. Bien arteko baturak –koalizioan indar gutxi duten Equo eta Espazo Ecosocialista ere badaude– AGE izena du, Alternativa Galega de Esquerdas alegia, eta ezusteko galanta eman zuen aipatu hauteskundeetan, inkestek aurreikusitakoa aise ganditu eta bederatzi diputatu –bost Euk, lau Anovak– lortu baitzituen, BNGren zazpienetik.

Xose Manuel Beiras, Anovako bozeramaile ez ezik, AGEkoa ere bada. Haren esanetan,



Txipiroiak plantxan

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Galiza irredenta: abertzale guztien gogoan baina ia denen agendatik kanpo

EDOZEIN GALIZIAR abertzalek esango dizu erreportaje honen hasieran ikus daitekeen mapa ez dela, berez, Galizia osokoa. Falta den zatia lerro hauen albokoan duzue ikusgai. Ekialdeko lurraldeak dira, historiaz, kulturaz eta hizkuntzaz galiziarrek baina aspalditik Galizia ofizialetik kanpo. Eo-Navia, Berzo, Seabra... Eskualde horiek gaur egun Asturias edo Gaztela eta Leongo autonomia erkidegoen barruan daude, eta ezin esan “galiziartasuna” bizi indartsua denik han. Galiza irredenta edo Galiza estremeira esaten zaie lurraldeoi.

Nós-UPren Vigoko egoitzan izan genuen mapa honen berri, Carlos Moraisekin berbetan ari ginela. Izan ere, Nós-UPk egin eta argitaratua da. “Hau da lurralde osoa, anputaziorik gabe, erakusten duen mapa bakarra”. Interneten aurkitu daitezkeen beste batzuetan ere ageri da Galiza irredenta, baina hagitzez bertsio murritzagoan. Bestalde, Nós-UPren mapak ez du 1833tik indarrean dagoen probintzia banaketa ofiziala jasotzen, eskualdekakoa baizik. Historikoa, Moraisen esanetan.

Galiziar abertzale ororen gogoa dago Galiza irredenta, baina oso talde gutxiren agendan dauka lehentasuna. Besterik gabe, hor dagoen zerbait da. Esparru nazionalista galiziarrean autonomia erkidegoaren mapa ofiziala darabilte gehientsuenek, BNGk eta Anovak barne. Ez dago eskaririk lurralde *irredentoak* Galizian txerta-

tzeko, dokumentu batzuetan aukera hori aipatu arren. FPG alderdi independentistako Mariano Abaloren esanetan, “abertzaleon kontzientzia lur horiek egon badaude, baina oinarritzkoena lortu ezean, alegia, gaur egungo erkidego autonomoak erabakitze eskubidea edukitzea, nekez eman go da haragoko urratsik”.



abertzale askok ontzat hartu dute EUREkin batasuna: “Hauteskunde ondoan egindako inkesten arabera, AGEren botoen %60tik gora abertzalea izan zen. Estatuko indarrekin ez batzeko tradizioa hautsi izanak ez zigen botorik kendu, eta ez du abertzaletasuna ahultzten, BNGk leporatu digun bezala. Aitzitik, BNG izan zen boto mordoa galdu zuena”.

2014ko Europar Batasuneko hauteskundetarako hautagaitzak prestatzeko prozesuak eztabaida areagotu du. BNG eta independentistak ez daude prest EU bezalako alderdi bat onartzeko hautagaitza galizar batean. Anovak, berriz, batasunerako proposamena denek egin nahi die, hau da, “alderdi abertzaleei zein Galiziako nazioari erabakitze eskubidea aitortzeko prest dauden ezkerreko alderdiei”, Beiraisen esanetan. Estatu osoko hautagaitza ezkertiara osatzearen alde dago Anova, IU barne, baldin eta Estatuan lau nazio daudela onartzeko prest badago –Espainia bera litzateke laugarrena–,

eta lauretako bakoitza erabakiak hartzeko eskubideak dituen subjektu politikoa dela aitortzen badu. Santiagon jaiotako politikariak dioenez, Esquerda Unidak eman du urrats hori, uztailaren 24an AGEk publiko egin zuen baina Angroiseko tren istripu larriaren ondorioz oihartzun eskasa izan zuen agiri batean Galiziarren autodeterminazio eskubidea onartu baitzuen. Zailagoa da, noski, IU horretara ekartzeta, “besteak beste Euskal Herrian arazoak daukatelako”. Alta, Xose Manuel Beirasek dio IUko zuzendaritza organo gorenean gehiengo direla lau nazioen planteamendua onartzeko prest daudenak; hori bai, auskalo zein erritmotan. “Galiziarrok geure kabuz ezin dugula, hori da zabaltzen ari den mezua”, leporatzen diote gainerako abertzaleek Beirasi. Eta denen gogoan galdera bat: posible izango da datorren urteko Aberriaren Eguna (uztailak 24) modu bateratuan ospatzea? ■



PERTSONAIA

JOSEBA IRAZOKI

«Internetekin, industria ez da beharrezkoa musikarentzat»

Eta gitarristaren hatz puntetan balego mundua?

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco





Gitarra?

Eskusoinuaren eta pianoaren artean aukeratzzen zen sasoian gitarra baizik ikusten ez zuena naiz. Orduan, gurasoen autoan entzuten genuen musika. Pedrito Fernandez, Laboa, eta euskal folka entzuten ziren gurean, Beatles-ik ez. Berantago, Euskal Rock Radikalak salatu zidan rocka egiteko nahi nuela gitarra. La Polla eta Kortatu izan ziren nire lehen bi taldeak, Barricadarekin itsutu nintzen gero, eta 16 urterekin etorri zen lehen gitarra elektrikoa. Talde horien kantuak jotzen nituen, huraxe nuen estilo kuttuna. 20 urtera arte, ordea, kirola eta gitarraren artean banatzen nuen denbora, baina hortik aitzina ia 24 ordutan izan dut gitarra buruan, obsesio bihurtzeraino. Aunitzetan esan dit neskalogunak gitarrarekin bat naizela. Zer nahi duzu, afiziotik ofiziorako bidea egin dugu batera, eta 40 urterekin gitarra kentzea besamotz geratzea litzateke niretzat.

Gitarrarik gabe besamotz eta Berako mikroklima musikarik gabe amuarraina lehorrean nola?

Mugakoak gara, eta deus izatekotan, etengabeko eta orotariko mugimenduan dauden gune biziak dira mugak. Hala, Beratik atera garen musikariak ez dugu musika estandarrik jorratzen, bidezidor ezberdinagoetan gabiltza. Gure kulturarekin, gure kultura musikarekin bat datorrena jotzen dugu. Disko trukaketa oparo bateko ondorioak gara. Tabernara jaitsi eta garagardo artean diskoak konpartitu eta entzuten genituen melomano batzuk ginen. Bilaketa betean geunden, telebista eta irrati formuletan ematen zigutenak ez zigun balio, ez zitzaigun gustatzen, eta ezin ginen gure musika gosea ase gabe gelditu. Horrela sartu ginen bidezidorretan, eta zidor batek bestera daramanez, halaxe gabiltza.

Historiaurreko eszena bat dirudi diskoak tabernan trukatzearenak.

Lehen ostatuan eskutik eskura egiten zena Facebook eta Youtuben bidez egiten da orain. Egia da lotura intimoa desegin dela,

NORTASUN AGIRIA

Joseba Irazoki 1974an sortu zen Beran. Maixa eta Ixiar, Xabier Montoya, Petti, Anje Duhalde, edo Mikel Erentxunekin astindu ditu gitarraren sokak, bere inguruan sorturiko Onddo, Do edo On Benitorekin zein bakarka aritzeaz gain. Egun, Atom Rhumba-ko partaidea da, bakarka kontzertuak eman eta eman ari da, Duncan Dhurekin biran dabil, eta ez dauka geldi egoteko asmorik.

elkartrukea aunitzez globalagoa eta zabala-
goa dela, baina Facebooki esker Estatu
Batuetako hiri galdu bateko bazter auzoko
talde baten diskoa deskubritu ahal izateak
ez dauka preziorik. Arazoa da, orokorrean,
baldintza kaskarragoetan entzuten dela
musika, eta ez Mp3 formatuaren eta orde-
nagailuaren bozgorailuaren kalitate eskasa-
rengatik soilik, musika entzu-
teko prozesua eraldatu delako
baizik. Diskoa entzutera zure
egongelan jartzen zinenean
horretara zeunden, melodiak
sentitzen, nota bakoitza
arnasten. Orain, interneten
zaude, aldi berean musika
entzun, bideo bat ikusi eta
lagunari mezua igortzen. Hori gutxi ez, eta
single eta bideokliparen sasoiak dira. Pen-
tsa, badira Youtuben bueltaka dabilen
bideoklip batekin ez duzula diskorik behar
diotenak. Ezaguna izan eta zure lana lau
haizetara zabaltzeko balio dezake agian,
baina niri diskoak egiten dituen jendea gus-
tatzten zait, pieza oso bat proposatzen
duena, soinu orokor bat. Berehalakotasuna-
ren kulturari bizi gara ordea, eta musika ez
dago horretatik salbu. Famatu izan nahi
baduzu, aitzina, baina nola izanen zara
musikari ez baduzu zuzenean jotzeko erre-
pertorio eta ahalmenik? Ni gitarrarik gabe
besamotz, eta kantu bakarra daukana han-
kamotz.

Musika doan jaisteko aukerari eskua sartu behar zaio ala hobe eztabaidatik hanka egin?

Ez da samurra. Denborak aldatu dira, eta aroarekin bat egitekotan, zure musika ia dohainik eman eta zure lanaren ordaina beste bide batzuetatik eskuratu behar duzula dirudi. Doako artearen ideia oso erromantikoa da, baina zergatik izan behar da artea dohainik eta elektrikaria ordainduta? Guk ere behar dugu gure ordaina. Hala, interne-

ten izaera libre eta doakoa mantentzea garrantzitsua iruditzen zait, baina horren ordainak zuzenekoetan kobratzea behar luke. Sarrerak garesti jartzen direla? Ez nago kontra. Tom Waits Kursaallean ikusteko 100 euroko sarrerak direla? Dirua da, baina edozein harginek kentzen dizkizu 500 txapuz bat egiteagatik, eta denak isilik. Edozein langileren lanak zor du ordaina, izan hargin edo musikari. Argi dago autoa konpontzearekin alderatuta, kontzertu batera joatea ez dela premia gorri bat, baina ez dakit kulturalki gero eta jende pobreagoa ez ote garen, ez dakit kultura bere neurrian preziatzen dugun.

Kultura pobreagoa preziatzen dugu, agian?

Salzten dugun eta saltzen duguten kultura, oso biguna da, oso erraz jatekoa, pobrea. Agian, gizakiok ez dugu maila ematen, uste baino animaliagoak gara, eta daukagun jendartea baldin badaukagu ustez garenera iristen ez garelako da. Ikerketa lan serioirik egin ez duen kazetaririk ez badago, edo kazetaria arrapaladan lan egitera behartzen bada, nekez argitaratuko da hausnarketa sakonik, eta behin jendea errazera ohituz gero ez dago buelta emango dionik. Niri esan izan didate nire musika ez zela sobera erraza, sobera irratian pasatzekoa, eta kritika baino, lorea iruditzen zait. Ez musikan ez ezertan, ez dut moldeetan sinesten. Zuk zure ustez egin behar duzuna egin behar duzu, zuretzat ona denaren bila joan. Moldean sartzea, erraztu beharraren erraztu beharraz zure sorkuntza pobretzea da. Beste bide bat gustatzen zaizula? Urratu ezazu, horrela iristen baitira emaitzak bizitzako arlo guztietan. Onartzen dut egin izan dudala lan bat edo beste joerara errendituz, baina ez pentsa emaitza hoberik lortu dudanik... Kar, kar, kar.



Erakusketa

San Telmo Museoa / Untzi Museoa

2014ko urtariraren 7a arte

«Bake-ituna»

1813

Donostiaren setioa, sutea eta berreraikitzea



Koproduktoreak







Erakundeak







San Telmo Museoa: Patroino pribatuak





San Telmo Museoa: Enpresa ongileak





Erakundeak







San Telmo Museoa: Enpresa ongileak





Musika eskola eta akademiek ere moldezale fama dute. Urte askoan ibili zara halakoetan irakasle.

Akademia pribatu eta eskola publikoetan egin dut lan. Pixkanaka zabaltzen ari bada ere, publikoan darabilten metodologia musika klasikora bideratua dago, eta klasikoa beharrezkoa izan arren, gaur egun musika eskola batean fundamentuzko pop-rock irakaskuntzarik ez egotea sinesgaitza bezain atzerakoia zait. Akademietan, aniztasun gehiago dago, baina oro har berehalako emaitzari begira irakasten da, moldek moldearentzat, gauzak ahal bezain emanak egin eta ahal bezain eginak emanez. Inongo irakaskuntza sistemetan ez da artista bat bere pertsonalitatean oinarrituz hezten. Ezinbestekoa da oinarri sendo bat lantzea, baina norbere bidea aurkitu eta urratzea da irakaspen garrantzitsu eta lortzen zailena. Horregatik, niri ez zait irakastea gustatzen, nik jotzea dut maite, beste musikariek konpartitza, sortzea.

Horregatik erabaki zenuen, orain hiru urte, irakasle lanak utzi eta musikatik bizitzea?

Irakaskuntzarekin oso erreta nengoen eta aldaketa eskatzen zidan gorputzak. Gainera, ordura arte izan ez nuen diru berme bat neukan, ordura arte ez bainekien musikari izanda bizitzerik izanen nuen, baina esku-artean hiru proiektu indartsu neuzkala oharturik apustua egin nuen. Gero, kontraesan moduko bat neukan, hain justu moldeetan ez sartzeagatik hasi bainintzen irakasten. Ez nuen musika diruagatik soilik egin nahi. Kontzerturik ez eman eta ez saldu arren, nahi nuen musika egin nahi nuen, eta diru-iturria beste bide batetik ziurtatuta eduki. Baina orain hiru urte, neuzkan egitasmoak erakargarriak zirela jabetu nintzen, ezer sentitzekotan musikari sentitzen nintzela, ez irakasle, eta salto egin nuen. Orain gustuko dudana egiten ari naiz. Hilabete batzuetan kontzerturik ez eta dirua nolabait atera beharrak estres puntua sortzen duela? Bai, baina baita bizia eman ere, etengabe baitzaude formula berrien bila. Pentsa, arrakasta gehien eman didan orkestra-gizonaren proiektua kontzerturik ez nuen denbora tarte batean sortu zen! Edozein krisi egoerak dakarren sortzeko adrenalina pizten dit bizimodu honek. Lanik ez daukadala? Ba ateak jotzera, formula berriak planteatzera, agian maila ematen ez duzulako entsaioetan ordu gehiago sartzera... Ez dago besterik. Horrek asko ematen dit artistikoki zein pertsonalki.

“Musika eskola batean fundamentuzko pop-rock irakaskuntzarik ez egotea sinesgaitza bezain atzerakoia da”

Industriaren negar hotsei kasu eginda, ez direla zurea bezalako apustu baterako garai onenak pentsa liteke.

Industria da krisian dagoena, ez musika. Musika ez da sekula krisian egon, eta nire ustez, ez da sekula egongo. Industria da zer egin ez dakiena, zirrikiturik topatu ezinik dabilena. Multinazional zein Euskal Herri mailako zigiluak galduta daude. Hala, desgertzea lukete onena. Nik bere musika kudeatzen duen artistan sinesten dut, eta internetekin, industria ez da beharrezkoa musikarentzat. Lanean dago koska. Ahaleginak dakar emaitza, egiten ari zarena dudana jartzeak, zure bidea urratzeak. Hemen jende bat oso eroso zegoen, formula egin eta betiko akomodatuak zirela sinetsita, etengabe aldatu eta egokitzeak lana suposatzen duela ahanztuta.

Hori da internetek hankaz gora jarri duena, ez musika.

Hankaz gora erortzeko modukoa zure lanen zerrenda da. Proiektu handiak, txikiak, bakar-ka, besteei laguntzen...

Diferentzia handiena lehen lerroan edo besteei laguntzen egotea da. Bakarrik zaude-nean begi guztiak daude zuri so, azterketa zorrotzagoa da, eta arrakasta edo porrotaren ardura handiena zurea da. Bakarka, biziago sentiarazten zaitu txalo bakoitzak, eta sakonago zauritzen kritikak. Horregatik diot erosoagoa dela bigarren lerroa, baina era berean, bakarrik kontzertu glorioso baten satisfakzioak autoestimua goitzen dizu. Hori hala, kontzertuaren dimentsioari ez diot garrantzirik ematen. Jotzen gustura banago, ez zait inporta taberna batean edo antzoki erraldoi batean egotea. Duncan Dhurekin jotzeak hasieran urduritasuna pizten duela? Jakina, baina beti iruditu zaizkit gaitzagoak hamar lagun aitzinean emandako kontzertuak 500en aurrean emanikoak baino. Oso *feedback* bereziko kontzertuak dira horiek, tranparik gabekoak. Egia da, bestalde, bakarrik jotzera noanean dena nik muntatu eta desmuntatu behar izaten dudala, eta esaterako Duncan Dhurekin kamerinoetan lasai egon besterik ez dudala, baina horri ez diot inolako garrantzirik ematen. Zuzenean jotzea da niri gustatzen zaidana.

Zuzenekoek etorkizunik dute?

Arazo handi batekin egin dezakegu topo: publiko falta. Euskal Herrian bederen, kontzertuetara doan jendearen artean, ez da belaualdi aldaketarik eman. Musika estilo

AZKEN HITZA

Promozioa

"Artista guztiek dugu exhibizionista puntu bat. Denoi gustatzen zaigu norbait gure lanaz galdezka etortzea, hedabideetan gure lana aipatzea, baina promozio sasoia heltzean... Nire desio handiena disko bat egin eta elkarriketa bakar bat eman gabe jendeak entzutea litzateke. Nahiago nuke musikak soilik hitz egingo balu. Baina ez da posible, promozioa egin beharra daukagu. Orokorrean bizia ematen dio proiektuari".

batzuetako kontzertuetara 30 urtetik gorako jendea soilik joaten da. Gainera, zuzeneko musikarekiko interes falta nabarmena sumatzen dut. BBK Live eta abarrak jendez gainezka egoten dira, baina tabernetako kontzertuak desertu hutsak dira. Hori gutxi ez eta "gaur ere musikariak!" kexatzen dira batzuk kontzertu bat egonda garagardo bat hartu ezin balute bezala. Beste kontraesan bat ere badago: jende gehien biltzen den musika jaialdietara jendea ez doa musika entzutera, eta gehienetan musika ez da garrantzitsuen. Festibaletako soina txarra izaten da, ezin duzu zure taldea gertutik ikusi, bere berezko eszenografia eta muntaiarik gabe jotzen du, denbora mugatua dauka... Gaizki bizi dut festibalen moda hau. Konbentziturata nago bertara doan jendeak ez duela zinez musika preziatzen. Nola azaldu bestela Donostiako Jazzaldian karrikan ezin kabituta ibiltzea, eta urtean zeharreko Altxerriko kontzertuetan hainbeste leku sobratzea? Oso moda kaltegarria da.

Modak moda, irudikatzen duzu musikarik gabeko mundu bat?

Publiko faltak zuzenekoak kondenatu ditza-keela suposatzeak ez du esan nahi musikak etorkizunik ez duenik. Beti egongo da musika, beti egongo da musikarientzat lana. Haur eta gazteei bideo-jokoak gustatzen bazaizkie bideo-jokoetarako musika egin beharko da, gerora filmak egingo badira filmetarako musika egin beharko da... Formulak aldatuko dira, besterik ez. Dena den, ni zuzenekoak alde edo molde mantenduko direlakoan nago. Nire mundualdian bai behintzat. Oso ongi irudikatzen dut nire belaunaldiko jendea 60-70 urterekin rock kontzertuetara joaten. Horregatik, oraingoz zuzenean jotzen ikusten dut nire burua. Hemendik urte batzuetara, jende gazteagoa eta hobe etorri, eta laguntzen ditudan taldeek beste zerbaite eskatzen dutela? Ba birzi-



klatu eta nire ibilbidearekin segituko dut. Zergatik ez, 60 urterekin, eksklusiboki gitarren inguruko proiektu bat? Nonbaitera iristeko ari naiz lanean, nonbait hori oraindik zehatz-mehatz definitzen ez dakidan arren. ■





ogiaren egia

Galparsoro
OKINDEGIA

Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin

Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

KILIAN JORNET

«Korrika zoazela lo geratzea ez da zaila, 40 ordu daramatzazunean»

Munduko mendi korrikalaririk onen(etakoa)a da Kilian Jornet i Burgada. Ia 2.000 metrora pasa zuen haurtzaroa, Cap de Rec-eko aterpean (Katalunian) lan egiten baitzuen aitak. Egun, Chamonix-en bizi da, Frantziako Alpeetan, baina errazago aurkituko duzu mendiko eski edo korrika lasterketaren batean parte hartzen. Skyrunning, ultrarunning, txapelketa eta kopa garrantzitsuenak irabazi ditu eta 26 urte bete berritan, *Summits of my life* du azken erronka.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

6 URTEREkin bere lehen 4.000koa igo eta 10 urterekin Pirinioak gurutzatu zituen kataluniarrek proiektu berria du buruan, kontinente guztietako gailur altuenak orain arteko abiadura handienera igo eta jaitea, ahalik eta material gutxien eramanek: Mont Blanc, Elbrus, Matthorn, Akonkagua, McKinley eta amaitzeko, 2015ean, Everest. Azkarrena dela eta mugarik ez duela frogatzen jarraitu nahi du 1,70 metro eta 57 kiloko kirolariak.

Gizakiaren eta mendiaren arteko harreman ahalik eta estuena bilatzen du, besteak beste, *Summits of my life* egitasmoak. Hain proba gogorak egin bitartean gozatu al daiteke naturaz?

Mendia eta natura nire bizitzaren zati oso garrantzitsua dira, beti mendiz inguratuta egon naizelako eta mendiz inguratuta sentitzen naizelako ongien. Eta bai, proba egin bitartean naturaz goza daiteke, nahiz eta gauza guztiek bezala alde onak eta txarrak dituen. Mendiak eman eta kendu egiten dizu eta hori onartu beharra dago, mendian egoteko.

Laguntzarik gabe eta ahalik eta material gutxienarekin igo eta jaitsiko dituzu gailurrak. Zenbaterainoko arriskua hartzen duzu zure abenturetan? Beldurra izan behar al zaio mendiari?

Bai, beldurra eta errespetu handia izan behar zaio, han goian agintzen duena mendia da, ez gu. Beldurra erakusten dizu non dauden zure mugak eta noraino iritsi zaitezkeen. Horregatik, ona da beldurra izatea eta zure gorputzak eta mendiak berak esaten dizutena entzutea. Zorritzarekin, heriotza oso presente

dago halako abenturetan eta denoi gertu egokitu zaigu nolabait. Zoriontasuna amildegitik banatzen duen marra oso fina da eta jakin behar dugu zein arrisku hartzen ari garen, jakin behar dugu mendian zoriontsu izatea larrutik ordain dezakegula.

Hain zuzen, erantzukizuna norberarena dela esan izan duzu. Arriskutsua dirudi hainbatek zuk egiten duzuna egin nahi izateak...

Bai, oso prestatuta egonagatik mendia beti da arriskutsua eta umil jokatu behar dugu haren aurrean. Konturatu behar gara asko galdu dezakegula eta jarrera horrekin hurbildu behar gara mendira, gure gaitasunak ezagutu behar ditugu, gure gorputzari kasu egin, meteorologia kontuan hartu... Faktore ugari dira aintzat hartu beharrekoak, eta ez dut uste jendeak nik

egiten dudana imitatu behar duenik, horrek dakartzan ondorioak jakin gabe.

Baina erreferentea zara kirolari askorentzat. Erantzukizuna sortzen dizu horrek? Zer saiatzen zara jendeari helarazten?

Bizitza eta mendia ikusteko modu bat eta honek erakutsi

diezagukeena transmititzen saiatzen naiz: umiltasuna, esfortzua, kementa, laguntasuna, pertseberantzia... Mendiak beti zerbait irakasten digula uste dut eta egunero zerbait ikasten joate hori da erronkarik interesgarriena.

Herri lasterketen, mendi korrikaldien eta triatloien booma bizi dugu. Kirol amateurri prostuitu dela uste duzu?

Ez, mendira eta kirola egitera ateratzeko gogoia duen jendea egotea ona da. Ingurunea

“Beldurra erakusten dizu non dauden zure mugak eta ona da gorputzak eta mendiak esaten dizutena entzutea. Heriotza oso presente dago halako abenturetan”





errespetatzen badugu eta gure artean ere elkarri errespetua badiogu oso interesgarria dela deritzot. Trail running proben helburua ez da errekorrak gainditzea, norberari gustatzen zaiona egiten disfrutatzea eta norberak dituen helburuak betetzeko motibatuta egoitea baizik; hori lortuz gero, berdin dio lehenengo edo azkena iritsi, meritu berdina duela iruditzen zait.

Irakurri dudanez, zure bihotza gai da lauzpabost ordutik mantentzeko 25 urteko korrikalari prestatu baten bihotzak 4-5 minutuz jasaten duen erritmoa. Jaiotzetik ezaugarriak dira ala landutako zerbaiten ondorioa?

Ez dakit, pentsatzen dut genetikarekin zerikusia izango duela, baina ziurrenik eragina du baita ere beti mendian bizi izanak, altitude altuetan, eta txikitatik gurasoen mendian ibiltzera eraman izanak, hori egiteari inoiz ez utzi izanak. Denaren batura dela esango nuke.

Zure liburuan (*Córrer o morir*, katalanez), oso presente dago sufrimendua. Sufritu gabe ez dago benetako ahaleginik?

Nire burua etengabe hobetzeko balio dit sufrimenduak, eta hori da indarbertzen nauena.

Egungo gizartea erosoezia dela eta helburu errazegiak jartzen ditugula uste duzu?

Leku guztietan bezala denetik dago, baina ez dut uste helburu errazak jartzea hobe edo okerragoa denik. Garrantzitsuena helburuak jartzea da, direnak direla, eta horiek lortzeko lan egitea.

“Ez dut uste jendeak nik egiten dudana imitatu behar duenik, horrek dakartzan ondorioak jakin gabe”. Goitik behera eta ezkereskuin: Artic Race 2013 eski lasterketan; iaz, Chamonixen; eta aurtengo Zegama Aizkorri mendi maratoian.

“Nire burua etengabe hobetzeko balio dit sufrimenduak, indarbertitu egiten nau. Lortzea kostatzen zaiguna da benetako plazera ematen diguna”



Zer da irabaztea?

Bideaz disfrutatzea, zerbait ikastea, eta ahal bada, ibilbidean zoriontasuna aurkitzea.

Munduko probarik zailenak irabazi dituzu. Dena lortu ostean, zer?

Tira, *Summits of my life* proiektuaren erdia baino ez dut egin, beraz oraindik pare bat urte ditut pentsatzeko [irribarretsu].

Liburuan kontatzen duzu lasterketa batean xede bakarrarekin atera zinela: irabaztea. Ondoren, ordea, aurrean erori zitzaizun beste korrikalari bat (Tarcis) laguntzera gelditu zinen. Trail proben onena da sarri laguntasun kontua dela. Irabaztea garrantzitsua da, baina niri poz handiagoa ematen dit norbaiti lagundu diodala jakiteak. Azkenean horretaz oroituko naiz etorkizunean, eta ez garaipen bat gehiago lortu izanaz.

Korrika ari zarelarik, fisikoak baino gehiago psikologikoak dira zure borroakak. Non dago muga? Gaitasun fisikoen eta psikikoen arteko hartu-eman da emaitza. Hankek aurrera egiten ez dutenean, buruak lagun diezazuke gainditzeko, hobetzen eta aurrera egiten. Eta alderantziz, buruak esaten dizunean ezin duzula gehiago, indar fisikoak baliatu behar zara lortzeko. Biak ditut funtsezko, hankak eta burua, eta bietako batek huts egingo balit ezingo nuke ezer egin.

Jaitsieretan hegan zoazela dirudi. Nola lortzen duzu zure gorputza kontrolatzea, halako abiadurak?

Batik bat ariketa kognitiboa da, ikusten duzuna lotzen jakitea erantzunak eta soluzioak aurkitzeko azkartasunarekin, eta hori guztia muskuluetara bideratzea.

Funtsean, emozio bila zabiltza beti...

Lasterketak planifikatzerakoan eta soluzioak bilatzeko orduan oso arrazionala naiz, eta gauzatzerakoan berriz, biziki emozionala.

Ordu asko eta asko pasatzen dituzu korrika, erotzeko modukoa ez al da? Lo geratu izan zara korrika egin bitartean!

«Inspirazioa behar duen sorkuntza da lasterketa»

Korri egitea

“Zergatik egiten dut korrika? Zergatik sortzen dit menpekotasuna lehiak? Ez dakit, uste dut ez dagoela arrazoirik. Aitzakiatzat esan nezake nekatutakoan endorfinak igotzen sentitu nahi ditudala, lasterketa bat irabazteak edo paisaia ederrak ikusteak sortzen didan emozioa sentitzeko beharra daukadala. Esan nezake eragiten didan ongizateagatik egiten dudala korrika, osasunagatik edo arazoetatik deskonektatu ahal izateko. Haurtzaroan erreprimitutako irrikak eza-batzeko izan liteke edo talde baten partaide izateko, zerbaitetan baliotsu sentitzeko. Agian nire patua segitzeko da edo nire beldurrei ihes egiteko. Beharbada, egungo gure bizimoduan galdu dugun ingurune erromantikoa berreskuratzeko egiten dut, edo nire istorio dramatiko eta heroikoa sortzeko, Erdi Aroko edo gerretako kondairen pare, protagonista eta heroia izanik, epika lortzea gero eta zailagoa dirudien mundu batean. Ez, uste dut gustatzen zaidalako baino ez dudala korri egiten, instant bakoitzaz gozatzen dut eta ez dut zergatian pentsatu beharrik”.

“Beharbada, egungo gure bizimoduan galdu dugun ingurune erromantikoa berreskuratzeko egiten dut korrika, edo nire istorio dramatiko eta heroikoa sortzeko”

Atleta ona izatea

“Atleta handia da bere gaitasun genetikoak aprobetxatzeaz gain atzetik lan handia egiten duena, baina atleta bikaina da konplexutasunaren eta desordenaren uretan igeri egiteko gauza dena, itxuraz zaila dena erraz eginez, desordenaren barruan ordena ikusiz. Pertsona sortzaileek desordena bilatzen dute, kontzientziaren mugetatik harago irudikatzen dituzten txoko guztiak arakatu ahal izateko, barrutik eta ingurutik darien indar irrazionalei segika”.

Lasterketa

“Lasterketa, artelanaren modukoa da: teknikaz eta lanaz gain, behar bezala burutzeko inspirazioa behar duen sorkuntza da. Eta iragankorra ere bada, sortu bitartean gozatzen duzulako eta une gorenean, bikaintasuna lortu duen puntuan, betirako desagertzen da eta ezinezkoa izango da lasterketa bera berriz sortzea. Antzeko lasterketak egongo dira, antzeko emozioak biziko ditugu eta antzeko sentsazioak sentituko, baina inoiz ez du forma bera izango, inspirazioak beste forma batzuk arakatzera eramango gaituelako”.

Córrer o morir liburutik hartutako pasarteak.



Bai, erotzeko modukoa da, baina azken finean, nire egunerokoa da, beste batzuek eguna gidatzen edo ordenagailu aurrean ematen duten gisan. Eta lo hartzera iristea ez da horren zaila: ez bazara lo egitera gelditzen, 30-40 ordu korrika daramatzazunean lo geratuko zara ezinbestean, eginahalak eginahala. Begiak ixten joaten zaizkizu eta borroka eginagatik, horri ezin diozu aurre egin. Une horretan irtenbide bakarra

dago: iskin batean gelditu eta lo-kuluxka bota.

Zein aholku emango zenioke motibazioa galdu eta amore eman duenari?

Gustatzen zaionaren alde borroka egiteko. Gauzak ez dira modu errazean eskuratzen eta lortzea kostatzen zaiguna da benetako plazera ematen diguna. ■



GORROTXATEGI



Egile Turroiak

Gorrotxategi Maisuaren Sorkuntza

Gorrotxategi

www.gorrotxategi.com

DAMUTUKO ZAIZU(T)E!

Txapelketa umore kolpeka

Azaroaren 6tik aurrera astero Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren ikuspegi bitxia eskainiko dizu ARGIAren web telebista programak. “Damutuko zaizu(t)e!” mehatxatu gaituzte lau bertsolariek. Eurek ere txapelketan kantari behar baitzuten, baina...

| ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |

Argazkiak: Axier Lopez



LAU BERTSOLARI GAZTEK egingo diote Txapelketako saioei jarraipena webTB saioan. Lehen fase osoaren balorazioa egingo dute azaroaren 6an sareratuko den programan, eta hortik aurrera, astero finalerdietako asteburuek eman dutena ekarriko dute. Unai Gaztelumendi eta Mirari Martiarenak aurkeztuko dute programa, eta esketxetako protagonistak izango dira Ander Lizarralde eta Arnaitz Lasarte.

Hautatutako (zergatik hautatuak? hori ezin aurrez jakin) bertsoaldiak dastatuko ditugu astero. Saioetako giroaren testigantza ekarriko digu Millan Mindegiak, unitate mobilean. Eustakiok eta Xibuliok bertsotako metaforak herri xeheari azalduko dizkiote. “Bertsoz aberastu nahi dut” atalak bertsoei buruzko urrezko galderak planteatuko ditu... Bertso munduak ere badu bere umore frikia.

Hultzeraren ondoren ez da Beranduegi


2009ko Txapelketan egin zuen ARGIAk lehen web telebista saioa, umore ukitu batekin saioen kronika egiten zuen *Hitzetik Hultzera*. Ondoren, umore kolpeka hiru urtez aktualitateari jarraitu zion *Beranduegi* eta *Damutuko zaizu(t)e!* da ARGIAk ekoiztutako hirugarren saioa. Aurreko bi saioekin pilatutako esperientzia eta azpiegitura teknikoa jarri dugu Txapelketaren zurrunbiloa pasioz jarraituko duten lau bertsolari hauen eskura, eta eurek gai librean sortzen dutena da ARGIA.com-en topatuko duzuna.

Non eta noiz

ARGIA.com-eko Multimedia kanalean asteazkenetan jarriko dugu astean asteko saioa ikusgai. Hamaika Telebistan ostiraletan emango dute. ■



Lau gantxoak



Ander Lizarralde Jimeno (Oiartzun, 1984). *Ez gara Palestinaz ari* bertso musikatuaren emanaldiarekin biluzten da herriz herri. Gipuzkoatik 18 bertsolari sailkatu ziren aurtengo Euskal Herriko Txapelketarako. Bera 19.a zen.



Unai Gaztelumendi Arandia (Añorga, Donostia 1988). Txapel asko jantzitakoa (taberna, gaztetxe eta elkartetan). Kartelean anaia iragarri eta bera atera izan da plazara. Programaz bihozkada bat du: "Zenbat lagun galduko ditudan!".



Mirari Martiarena Iraola (Oiartzun, 1986). Lehen aldiz Eskolarteko Txapelketan kantatu zuten Unai Gaztelumendirekin ofizioka egitea tokatu zitzaion. Saio honekin trauma hura gainditzea du erronka: "Zenbat barre egin dudan aste honetan!".



Arnaitz Lasarte Santa Kruz (Ereñozu, Hernani 1989). Larre-Gain sagardotegian zirian aritzen dena. Hernaniko San Joanetako txupinazoan bertsolari finkoa. Saio baterako deitzen diotenean ezetz esaten duen horietakoa.

Bertsolari
Txapelketa
Nagusia 2013

TOLOSA

Usabal kiroldegia
Azaroak 10, 17:30ean



Amaia Egirre



Etsahun Lekue



Igor Elortza



Iñigo Manteizidor
"Mantxi"



Ilexux Mari Irazu



Unai Larriaga



Enneta Errealdu



Iokin Uranga



Ion Martín



Ione Uribe



Iñaki Ito



Nerea Eustondo

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEA



www.bertsozale.com



DANI BLANCO

Mikel Zurbano



EHUKO

IRAKASLEA,

EKONOMIALARIA

Saria gora saria behera

EKONOMIA NOBEL saria urte berean teoria baten egileari eta hori errefusatzeko duenari ematearen emaitza garbia zero da, ezereza. Bada, horixe da 2013 urteko saldoa. Tira, badago hirugarren sariduna baina inor gutxi erreparratu du Hansenen –hirugarrenaren– merituetan. Harridura kontuetan ohitzen hasita egon arren, aurtengo Ekonomia Nobel sariarekin batzordekideen eskizofrenia akademikoa nabarmen geratu da. Varoufakisek dioen moduan fisikako saria une berean Galileori eta kondanatu zuten inkisidoreari ematearekin aldera daiteke ekonomia batzordearen aurtengo erabakia. Saritutako bi ekonomialari aurkariak, Eugene Fama eta Robert Shiller dira.

Unibertsitateko irakaslearekin doan ikasle batek 10 eurokoa lurrean ikustean hartzeko keinua egiten du. Esperientzia handiagoa duen irakasleak argitu egiten dio egoera: “Ez duzu indarra zertan xahutu behar, billetea benetakoa balitz ez litzateke bertan egongo eta”. Kontuaren irakurketa analitikoak ondokoa da, “merkatu efizienteetan” lehiak beti ekiditen du aparteko irabaziak eskuratzeko aukera

Duela lau bat hamarkada, Famak merkatu efizienteen hipotesia garatu zuen. Finantza merkatuen efizientziak ari da eta, hipotesi honen arabera, finantza aktiboen prezioek finantza merkatuetako informazio eskuragarri guztia islatzen dute. Hots, finantza merkatuak ez dira inoiz erratzen, bertako saltzaileek zein erosleek batzuetan jokabide okerrak hautatu arren. Famaren unibertso teorikoan ez dago burbuilentzako edota espekulatzailentzako tokirik. *Merkatu efizienteen* hipotesia *Igurikapen edo espektatiba arrazionalen* teoritik oso gertu dago, baita finantza aktibo eratorrien prezioak ezartzeko ereduetatik ere. Teoria hauek guztiek azken bi hamarkadetako finantza merka-

tuen garapenerako oinarri teorikoa eskaini dute, egungo Atzeraldari Handiaren iturburua izan den garapen ero eta kontrolik gabekorako alegia.

Famaren teoriaren eduki garrantzitsuena zein irrealena zera da, merkatu efizienteetan arbitrajeak egiteko aukerarik ez dagoela; hots, saltzaileek zein erosleek finantza aktiboen edo beren prezioen gaineko uste okerra izan dezaketean arren honek ez die arbitraje eragiketarik egiteko eta espekulatzeko ateak zabaltzen. Ipuintxo batek erakusten du aipatutakoa. Unibertsitateko irakaslearekin doan ikasle batek 10 eurokoa lurrean ikustean hartzeko keinua egiten du. Esperientzia handiagoa duen irakasleak argitu egiten dio egoera: “Ez duzu indarra zertan xahutu behar, billetea benetakoa balitz ez litzateke bertan egongo eta”. Kontuaren irakurketa analitikoak ondokoa da, *Merkatu efizienteetan* lehiak beti ekiditen du aparteko irabaziak eskuratzeko aukera.

Famaren sari-kidea den Shiller beste muturrean dago kokatuta. Shillerek berak dio *Merkatu efizienteen* hipotesia “pentsamendu ekonomikoaren historia guztiko errakuntzarik harrigarriena” dela. Izan ere, Famak makroekonomiaz ezer gutxi dakiela aitortzen duelarik Shilleren analisiak espekulazioaren dimentsio makroekonomikoa barneratzen du. Famak ez dakiena Shillerek mahai gainean jartzen du, hots, finantza jardueraren zati esanguratsua espekulatzailen hutsa dela eta ekonomia produktiboarentzat kanpo eragin negatiboak dituela. 2008ko krisia lehertu aurretik Shillerek aktibo ugariaren –horien artean higiezinak– prezioen bilakaera aztertzen jardun zuen. Azterketa horretan Amerikako Estatu Batuetako hamar hirietako etxebizitzaren prezioen indize sintetikoak nabarmentzen da. Indize horrek 2001 urtetik aurrera inflazio izugarria erakusten zuen. Eugene Famarentzat inoiz lehertu behar ez zuen krisiaren iragarlea izan zen aipatutako indizea. ■





GONZALEZEK FUNDAZIOA ERATU DU
BERE EKARPEN POLITIKOAK AZTERTZEKO...
behin·behineko izen·proposa:

Felipe X



KUR
KUR

Iñaki Odriozola

IRAKASLEA ♦



DANI BLANCO

Betiereko kartzela

ESTATU ESKLABISTAK baino lehen, tribuak oinarrizko egiturak zirenean, liskarrak euren artean konpontzen zituzten. Egindakoaren ondorioen neurririk ez zegoenez, ordainketa ohitura desberdinak eraiki ziren. Geroago, botereak zentralizatu zirenean, arautzeari ekin zioten, menpekoen beldurra eta kontrol soziala irabazte aldera, bide batez.

Hammurabi-ren Kodea da ezagutzen den legedi zaharrena. Oinarria Talioaren legea da, hau da, begia begi truk. Araudi honen izaera bortitza ulergarria da, botere absolutu zapaltzaileen logikan, bai eskubiderik gabeko, eta betebeharez betetako, esklaboek jendar-teetan.

Lehen liberalek, ilustrazioan, gizabakoaren askatasuna eta berdintasuna aldarrikatu zutenean, Talioaren legearen eraginkortasun eskasaz ere ohartu ziren: ez zuen balio delituak gutxitzeko, sufrimendua areagotzen zuen, eta boterearen gehiegikeriak ezkutarazten.

Hiritarren eskubideak onartu ziren, eta estatuak, botere zapaltzailea urrituz, haiek babestu beharra izan zuen. Kontratu soziala apurtzen zutenei, heriotza-zigorra edo bizi arteko kartzela ezartzea gehiegizkoa zela pentsatu zen, penatuarentzat krudelkeria, eta jendartearentzat jasangaitza. Egindakoa larria izanik ere, hiritar orok birgizarteratzeko esku-bidea izan behar zuen, estatuaren ardurapean.

Estatua botere absolutua berreskuratzen ari da, eta zenbait jende alde dago

Nik uste, azken aldian, atzera egiten ari garela, eta nabarmen (ez naiz *Parot doktrinari* buruz ari zehazki, disidentzia politikoarena larriagoa baita). Oro har, kartzelak presoak izorratzeko eta menperatzeko dira; lege aldaketak, zigorrak gogortzeko; eta lehen 30 urte baten azken muga, gero 40 ezarri zuten. Orain, bizi arteko kartzela zigorra ezarri nahi dute. Aztoratuenak (ikusit ditut Madrilén oihuka), berriz ere, heriotza-zigorra eskatzen.

Estatua botere absolutua berreskuratzen ari da, eta zenbait jende alde dago. Hiritartasun zentzua galtzen goaz, eta menpeko zoriontsu bihurtzen ari gara, aldamenekoaren salatzaile, auzokoaren jazarle, Anaia Handiaren begiradapean. Talionaren legea berriro ezartzeko, biktimen mendeku gogoia erabiltzen dute, komunikabideetan intelektual morroiek alarma soziala sortzen duten artean.

Ni, neu, ez nago ados. Gizabanakoa-
rentzat 20 urtetik gora kartzelan egotea izugarria da, benetan, gizatasunaren aurkakoa, eta 30etik gorakoa mendeku-zaletasunetik bakarrik ulertu ahal da, hots, ez da eraginkorra, eta sufrimendua areagotzen du.

Baina estatua, guztiona bada, ezin da mendekuari aldekoa izan, eskubideen aldekoa baizik. Ilustratuek asmatu zuten ipuin sinestezin hori. Eta guk sinetsi. ■



DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Barkaezinak

AUTOBUSEAN ahoak eman ahal ari dira, kamera aurrean direla eta ibiltariak interesatzen dituztela ustez: zerga sobera ordaintzen da, gobernu sozialistak lumatzen gaitu, gerra on batek bederen arazoak konponduko lituzke, eskuin muturrarentzat bozkatuko dugu beste aukerarik ezean, gazte alfer eta kanpotar mukizu horiekin larderiatsua datekeelako, ezkerrekoa naiz alta... Burua altxatu dut ikusteko nork zikintzen didan Joan Margariten poemak katalanez irakurtzeko premiazkoa dudana isiltasuna: “*Hem perdut poc pero ho bem perdut to*”.

Nabaritzen dira jendeak barka ezinkeria obratzearen bezperan elkarren berotzen.

Balentriaz. FN bozkatuko dute arraiki, atzo Etxarrin, Ainhoan eta Ezterenzubín bezala, konplexurik gabe, txirotasuna, ingurune sozial sarraskitua eta larru koloreagatik bazterketa pairatzea zer den ez dakiten laborari eta langile plazentek, Marine blonda eta bulartsua delako, zurien, jabeen eta kristauen heterozentris-mo neoliberalaren ikurra harroki daramalako.

Nola ahanzi antzeko gorroto diskurtsoek zilegitu zutela Auschwitz? Ondorioak jakinez, tematzen baldin bagara, barkaezinak gara. ■





Iñaki Antigüedad

♦ AMAIURREKO DIPUTATU OHIA

Sinesgarritasuna da neurria

POLITIKAREN KONTUAK funtsean hedabideetan segitzen dituen baten gogoeta da hau, lantzean behin aparteko iturrietatik edanda ere. Politika alderdietatik haratago eta erakundeetatik honatago izan badela sinetsita dagoen baten gogoeta. Beste batzuen osagarri.

Bi urte joan dira mugarri izan zen aste hartatik. Beroaldi hark gorabeherak izan ditu gerora, hotzaldiak barne, bihotzak eta buruak tenperatura berekoak zertan izan ez duten seinale. Hortaz, apustu estrategiko berrian sartzean ona da onartzea bidea ibilian egiten dela, trantsizioz, abiadura aldakorrean, norabidea etengabe elikatuz, mugarri berriak jarritz, bidaia ikasiz, baldintzak sendotuz, eta unean uneko pozak gozatuz. Baina guztia, dagoena eta ez dagoena ere, prozesu baten barruan ulertuta, ezinbestean.

Prozesua da giltza, dimentsio bakarreko politika baino askoz gehiago. Editorial batean irakurri bezala, hiru dimentsiotako politika, bul-tzada sozialez, arriskuak hartuz, tabuak behingoz baztertuz, benetan zeharrekoa... aldaketarako politika, finean. Nik beste elementu bat gehituko nioke: eskala, espazioan eta denboran, bietan neurtzen delako apustu baten sinesgarritasuna, eta sinesgarria ez denak ez du gerorik oraina izan arren. Ezuste batzuk horrekin lotuak izan daitezke.

Izan ere, epe luzerako helburuak epe motzean ditu helbideak, derrigorrez. Perspektiba sinesgarria epe guztietan. Ez dezagun bide-orria gatazkaren eremura mugatu, apustu guztiek bide-orria behar dute eta!, are gehiago krisian. Etzi baino lehenago bihar delako. Hortaz, eskala beti ere, ezker subiranisten esparru desberdinak sentitzen ditut. Gasteizko Legebiltzarra, Iruñekoa, Gipuzkoako Gobernua, Ipar Euskal Herria, Udalbiltza... Eta egia esan, kosta egiten zait eragin-esparruotako hariak bide-orri argi eta oso batera biltzea. Matazatu egiten zaizkit. Jauzi handiegia, nire ustez, gaurko ezinbesteko kudeaketa pragmatiko jatorretik etzidamuko balizko Euskal Estatura. Epe guztietan bete beharreko jauzia. Hortaz, EH Bilduri dagokio bide-orri oso eta propioa lantzea, propioa.

Euskal Bidea esaten dugu orain. Euskal bide sarea esango nuke nik, jarduera politikoaren uztarrian espazioa eta denbora kateatzen dituen. Biharkoari etzikoari besteko garrantzia ematen diona, pragmatismoan jaus-teko beldurra uxatuz. Marra nagusietan etenik ez, eta mamia etengabe elikatuz. Hiru dimentsiotako sarea, abiadura neurrikoa. Eta, batez ere, gehiengo sozialarentzat sinesgarria. Horixe neurria. ■



BESARO LANDA HOTELA



*Iratiko oihanaren
sarreran*



Tel.: 948 890 350
www.besaro.es
hotel@besaro.es

www.facebook.com/HotelRuralBesaro



Angel Erro

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Idazlearen egiak

IDAZTEAK gehienetan tranpak ekartzen ditu berarekin (tranpari euskalki batzuetan artea deitzen zaio baina ez dut hortik joko). Kalkuluak eta amarruak. Irailetik hasi naiz *Berrian* egunero zutabe bat idazten. Hilabete bat lehenagotik ekin nion lehendabiziko kolaborazioa prestatzeari. Horrelakoetan gure zutabegileek askotan egiten dituzten oporretatik etxeratzearen kontaketen parodia osatzeko apeta nuen, gertaera hurbil bat gogoan. Azkenean, erabaki nuen bezperan gertatutako zerbaitez idatziz hasi behar nuela. Baina Etxera izeneko testutxoia umezurtz gelditu zitzaidan ordenagailuko karpeta batean.

Idazlea izateak gehienetan handiustea dakar berarekin. Behin testu bat eginda, ezinezkoa zaigu irtenbidea ez ematea. Eta Burlatako *Axular* aldizkaritik zer-bait eskatu zidatenean aukeran etorri zitzaidan. Hona zutabe delakoa:

Etxera

NIRI ere gertatu zait atzerrian egon eta nongoa naizen azaldu behar izatea. Orobat gertatu zait, behin Euskal Herrian naizela, geo-pedagogia nazionalaren pasadizoa puztu edo apaindu behar izatea, nire entzuleriari atsegin gehien emateko. Bada, kit ahozko euskal literatura garaikideko azpi-genero garrantzitsua dela, zaindu eta ongi landu beharrekoa.

Inoiz bizi ez dudana da istorioaren subjektu pasiboak, gu nongoak garen irakasten diogunak, *Basque Country*-ren berri izatean, zer sentitzen duen. Berriki arte.

Omahako aireportuan Europarako bidea hartu nuen. Hegaldia atzeratu eta areto batean sartu gintuzten itxaroteko. Ni nire liburutxoarekin ez nintzen gehiegi asaldatu. Hortik gutxira neska bat ingeles eskasean hasi zitzaidan galdezka, ea zer esana zuten, noiz abiatuko ginen. Nik ingelesez azaldu eta berak bere taldekoei euskaraz errepikatu. Hara! Duda egin nuen zer egin. Baina ezin nuen aukera galdu: "*And where are you from?*" galdetu nien, erabat itxurazkoa ez zen jakin-minez. Zehatz-mehatz azaldu zidaten nire herria-

ren historia, ezagutzen nuenaz pixka bat bestelakoa, ederragoa. Niri ez zidaten galdetu nongoa nintzen ni.

Frankfurten hegazkin banatan itzuli ginen, beraiek eta ni, etxera.

Denborak gehienetan zentzatzeari dakar berarekin. Aurrekoa idazten emandako, gehienez jota, 60 minutuak (edo, nahiago bada, ez argitaratzea erabakitzen emandako hilabetea) oso ongi galdutzat eman nitzaizke, inon atera ez banu. Hortaz aparte, argitaratzeak gehienetan ustekabea dakar berarekin. Zeinek esan zidan, Erdal Herriko erdigunean, eta alferlanean, argitaratuta, oihartzunik eta erantzunik izanen zuenik, Aretxabaletatik? Hauxe da *Axular* aldizkarikoek pasa didaten gutuna:

Etxera dela eta

ZUEN azken alea irakurrita, Angel Erroren artikulua- rekin topatu gara. Bertan neure burua eta nire koadri- la erraz ezagutu ditut eta ez onerako. Ni ez naiz nor

idazle batek bere lana nola egin behar duen esateko, baina zehaztapen batzuk egiteko beharrean nago. Eskertuko nuke hitzok hurrengo alean argitaratuko bazenituzte.

Asaldatu ez zela esaten du Errok eta megafoniako ingelesa ezin ulertuta berari galdetu geniola. Zer ikustekorik ez. 1)

Ni hiru urtez bizi izan naiz lanean Nebraskan eta, jakina, ez dut ingelesa ulertzeko arazorik. 2) Bera guri begira-begira zebilen aspaldidanik, ia guk bestelako asmorik sumatzeraino. Megafonia- tik zer esan zuten galdetu zigun berak,

euskaraz. 3) Bi segundotara azaldu zigun zutabegilea zela. 4) Hegazkin berean iritsi ginen

Loiura. 5) Berak galdetu zigun nongoak ginen, bai, eta helbidea, gure bueltatzeari

idatzi behar zuen zuta-

bearen kopia guri pasatzeko. Zertara datoz hainbeste gezur? ■



Antton Olariaga



HEDABIDE HAU POSIBLE EGITEN DUZUENOI ESKER...

argitara atera dugu Nafarroako Aurrezki Kutxaren espoliazioa



- Urteak izan dira lapurretan eta ustelkerian murgilduta.
 - Beste klase politiko bat merezi dugu, eta horren alde lan egiten dugu egunero.
- Inork ez du gure ordeaz egingo.

Hori lortzeko baliabideak behar ditugu.

helburuak lortzeko
GURE BALIABIDEAK

Aritz Intxusta
EUSKAL HERRIA SAILEKO
KAZETARIA

naiz:

«Donostiak ez daki zein diren bere problemak»

Parisen bizi da Koldo Izagirre, Marrutxipi izeneko auzoan. Eta Parisetik –alegia, Donostiatik– Berlinerainoko –alegia, beste Donostiarainoko– poema bilduma argitaratu du: *Parisen bizi naiz* (Susa). Hiriaren mugatik idatzi duen liburuaz hizketan hasi gara eta bidean atera dira auzi politikoak, urbanistikoak eta pertsonalak.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

Argazkiak: Dani Blanco

Parisen bizi naiz du izena liburuak, baina izen bereko poeman Donostiari buruz ari zara. Bellepoquekeriari kritika?

Belle Epoqueak gauza distiratsuak, interesgarriak eta dekadenteak ekarri zituen, baina Donostia ez da libratu horretatik. Erabat monarkikoa da bere estiloan, bere festetan eta bere beldurretan ere: gazteei eta auzoei dien izu horretan, adibidez. Ez du preseski esan nahi espainola eta Juan Carlos I erregearen zalea denik, estilo monarkikoa hedatua dagoela baizik, ez bakarrik urbanismoan, baita egiten dituen ekitaldi askotan ere.

Jon Sarasuak, bere azken liburuan, galde egiten du zer galduko lukeen Donostiak Zinemaldia kenduko balitzai. Bere ustean, ez asko: sektore batzuek bai, baina hiriak hiri bezala ez. Alabaina, Juan Karlos Izagirrek azken Musika Hamabostaldia aurkeztu zuenean, zera esan zuen: “Zinemaldia, Jazzaldia eta Musika Hamabostaldia dira Donostiako kulturaren oinarriak”. Beraz, [barre egin du] monarkikoa izaten jarraitzen du Donostiak, Bildurekin ere.

Estimatzen dut Juan Karlos Izagirre, baina ezin dute. Zer edo zer daukate, ezin etena. Beren historiaren irakurketa kritiko bat, Donostiaren historia soziala, oraindik egiteko eta asumitzeko dago. Eta hori egiten ez den bitartean ez du nortasunik edukiko, beti izango da monarkikoa.

Historia kritiko horretatik etor liteke beraz *Donostia* poeman aipatzen duzun nortasun adostua?

Gatazka behintzat bai. Benetako gatazka. Donostiak ez daki edo ez du jakin nahi zein diren bere problemak. Berrehun urte dira erre zutela, ahalegin batzuk egin dira historiografia berri bat muntatzeko... Langile eta popular arrastoa zeukan guztia suntsitu du bere udalerrri osoan. Begiak ezin du memoria errekuperatu.

Bilbori eskainitako poeman apur bat barkaberrago ez al zara izan?

Bai, seguru. Badago kopla gogor xamarren bat oraingo Bilbori buruzkoa, dena den. Ni

familia langilekoa naiz eta langile munduan bizi izan naiz. Miresten dut jende hori, badaukat ikuspegi idealizatu bat, dudarik gabe. Bilbok hori bazeukan, Donostiak ez dauka, ez dauka ezer, jada ez dauka arrantzalerik ere ia.

Gainera, Jose Antonio Agirrek esan zuen bezala, “*Bilbao no se rinde*”. Erresistitu egin zuen hiria izan zen eta

mitifikatuta daukat. Gustatu edo ez gustatu orain egin dutena, badakit nora noan Bilbora noanean; ez nau dezepzionatzen. Donostiak bai.

“Ez ulertuarena egiten didate euskaraz ariko banintz bezala”. Euskaldunen hiriburu izatetik urrun samar dago Gipuzkoako hiriburua.

“Legea kritikatzetik eta estraparlamentarioki jardutetik ilegalizazioaren beldur izatera pasa gara. Ulertzekoa da? Bai. Politikoki eraginkorra da? Eztabaidatzekoa da”



“Donostiaren historia soziala oraindik egiteko eta asumitzeko dago. Hori egiten ez den bitartean ez du nortasunik edukiko”.

Bai. Miresten ditut katalanak Bartzelona daukatelako. Han bizi ez diren idazle katalanek gorroto dute, esaten dute publikatu ahal izateko hara joan behar duzula. Baina ondo dago horrelako zentro bat edukitzea, bere ongaitz guztiekin.

Donostiarekin gertatzen da, askotan zer edo zer espero duzula eta ez dizula ematen. Oso erraz eskaintzen du bere burua edozertarako hiriburu eta gero ez da iristen, ez du jariatzen. Eta azpian badago gazteria inbolukratu handi bat, baina zerbait dago, kristalezko sabai bat, gorago pasatzen uzten ez duena.

1970eko hamarkadako gazte belaunaldiak lortu ez zuen eraldaketa sozialaren nostalgia sumatzen da poema batzuetan. Orduan irabazi ez zena galtzen ari al gara orain?

“Gure kezka arte ofizialistarekin apurtzea zen; barandiarankeriak eta gauza etnoak... Horiek denak berriz itzuli dira. Arte autonomiko ofizial bat dago, bide-talo guztietan ikusten dena”

Esperantza handia zegoen 70eko hamarraldian. Galdera unibertsalak planteatzen genizkion gure buruari eta erantzun unibertsalak ematen saiatu ginen. Horregatik zegoen marxismoa hain eztabaidatua. Zatiketa politikoak ere horregatik izan ziren ezkerrean, gauza fundamentalengatik. Dena eman zuen belaunaldi horrek: kartzela, heriotza, borroka armatua, zikintzea... Baina hauteskundeak etorri ziren eta orduan iraultzailea politikari bihurtu zen, hor etorri zen galera. Akomodazioa, politikaria... Nahiz eta HB kanpoan geratu eta oso interesgarria izan borroka estraparlamentario bat nola eraman litekeen ikasteko, bere erratu guztiekin ere.

Gero kontsumismoa, nik eta nire koadriak Marcuseren liburuetan ikasi genuen hura,

benetan etorri da eta telebistak piztuta daude Herriko Tabernetan. Orain beste kontu bat dator [barrez] eta espaloitik ibili beharko dugu.

Barne errimak poeten sindikatuaren hitz egi-ten duzu horretaz, ezta?

Bai, anekdota batetik sortu nuen. Anekdota testuala izan zena espazial bihurtu nuen. Erreterian manifestazio batean batek “inde-pen-dentzi-a!” egin zuen oihu. Korrika etorri zitzaion arduradunetako bat esanez hori ez zela leloa, ez zela gaia.

Zein zen ba manifestazioaren aldarrikapena?

Nazionala zen, ez zen udal mailakoa. Oso adierazgarria da: legea kritikatzetik eta estraparlamentarioki jardutetik ilegalizazioaren beldur izatera pasa gara. Ulertzekoa da? Bai. Politikoki eraginkorra da? Eztabaidatzekoa da.

Arteetan ere belaunaldi horren apustua gaur nagusi denaren oso bestelakoa izan zen.


Gauza bera gertatu da, atzera egin da. Guk abangoardian nahi genuen egon, gazte guztiek dauzkaten kezkek genituen eta gurea arte ofizialistarekin apurtzea zen; barandiarankeriak eta gauza *etnoak*... Horiek denak berriz itzuli dira. Arte autonomiko ofizial bat dago, bide-talo guztietan ikusten dena; taberna guztietan *etnoa* nagusitu da, dantzan, pinturan; antzerkian komedia erraza...

Lehenago argitaratutako artikulua batzuk berreskuratu dituzu liburu honetarako. Zergatik?

Hasieran saiakera labur batzuk egiteko asmoa neukan, baina ez zitzaizkidan gustatu, artikulua mailatik ez ziren pasatzen. Abandonatu egin nuen asmo hura, baina apunteak bilduta neuzkan, aspaldi samarretik jakinmina neukalako hirigintzak zer eragin daukan gure bizimoduan, gure hizkuntzan... Eta ustekabeen apunte haiek poema forma hartzen hasi ziren, eroso samar sentitzen hasi nintzen eta horrelaxe mantendu nituen artikulua, harira zetozelakoa.

Jose Manuel Enea poeman etxe baten zaharberritzeaz idatzi duzu eta nola obra horretan zenbakiak hitza ordezkatzeko duen. Eraikuntzetatik hasten al da hiria deshumanizatzen?

Azken finean hitzaren beldurra ere badago. Hitza ikustea, soberan dagoen zerbait bezala. Gogoratzen naiz orain dela hamar bat



Beste proiektu batetik sortu da *Parisen bizi naiz*. Izagirrek bilduta zeuzkan ohar batzuk hirigintzak gure bizimoduan daukan eraginari buruz jardungo zuen saiakera baterako. “Eta ustekabeen apunte haiek poema forma hartzen hasi ziren”.

urte egon zela proposamen bat Pasaian kale izenak aldatzeko. Atzera bota zen, baina inkesta bat egin zuten aldizkari batean, *Bran-kan*, eta inkestatuetako batek, uste dut irakaslea zela, esan zuen eztabaidak saihesteko hoberena Ameriketara bezala kaleei numeroak jartzea zela. Horretan gaude: alde batetik pozgarria da, hitzak badu molestatzeko duen zerbait... Egia izango ahal da!

Lagun batzuk ere agertzen dira *Parisen bizi naizen*: Ibon Sarasola, Ramon Saizarbitoria...

Beno, Ramon bat ageri da Kursaal zubian... Keinu bat Apollinaireren *Le pont Mirabeau*ri. Idazle bati buruz da, zubian barrena doa,

“Txikiak gara, gutxi gara, gauden bezala gaude, sekulako porrot pila hartu dugu, baina hor gaude. Ezkortasun militante bat positiboa da beti. Baikortasunak erosotasunera eramaten gaitu”

beste zubi batzuk buruan dituela eta jendea-
rekin topo egiten du, sudurra uretan, burua
beste zer edo zertan. Omenaldia da gure lan-
bideari, idazleari. Eta idazle horrek Ramon
du izena [barrez].

Aldiz Ibon Sarasolari "errua" bota diozu.

Omenaldi txikia da hori ere. Poeman aipa-
tzen den irudi hori buruan geratu zitzaidan,
"Gazte naiz: / irtetaria harrika
hautsi dut". 16 urte nituen eta
irudi potentea iruditu zitzai-
dan. Ahaztutako liburua da
Sarasolaren *Poemagintza*, oso
liburu ederra; merezi luke
berrargitalpena sarreratxo
batekin.

RH: umorez idatzi duzu "erre
hatxe ezkorra"-ri buruz. Kontra egitea odolean
daramagu?

Ni erre hatxe positiboa naiz [barrez]. Egia
esan, jenialitate hutsa iruditu zitzaidan Xaka
Kortaxarena'tar Txominen liburu batetik
dator: traperia batean ikusi nuen, *Euskaldunon*
RH ezekorra. Euskal jatorriko biologo eta
medikuen artikulu bilduma da, berak itzulia,
latin erroko termino zientifiko bat bera gabe,
dena euskal erroko hitzekin emana, sekulako

meritua. Titulua jeniala iruditu zitzaidan eta
poema bat probokatu zidan.

Txikiak gara, gutxi gara, gauden bezala
gaude, sekulako porrot pila hartu dugu, baina
hor gaude. Ezkortasun militante bat positi-
boa da beti. Baikortasunak erosotasunera era-
maten gaitu. Poema ganberroa da, baina aldi
berean sinetsi egiten dut gure nortasunaren
zati interesgarri bat behintzat hori dela, "azen
ontzeko, beste izurrite bat!".
Etorkizun liluragarri bat sal-
tzen diguten guztiei adarra
jotzeko da.

Azkeneko poeman Paris Berlin
bihurtzen da.

Paris-Berlin ardatz ezinezkoa
da eta iruditzen zitzaidan inte-
resgarria zela talka hori era

sinbolikoan agertzea. Eta agian, nahi nuen
garbi gera zedila ez naizela Parisen bizi, Ber-
linen ere bizi naizela. Hiri ideala zein izango
zen? Bien sinbiosia: Parisen dekadentzia eta
elegantzia klasikoa eta Berlinen indar berri-
tzaile, libre eta arrazionalagoa.
Arrazionala onerako, kasu
horretan. Berreraikitzen jakin
izan duen hiria da, Donostia ez
bezala. ■



**"Hiri ideala zein izango zen?
Parisen dekadentzia eta
elegantzia klasikoa eta Berlinen
indar berritzaile, libre eta
arrazionalagoa"**

EGIZU HARPIDETZA EGIOZU HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SELORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkoa. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELOPARRA
HEMEN PARRI

ERDIKO KAIERA

BADA TEATROA

Geure historiari keinu eginez, umore zentzugabea dakar *Traganarru* obrak

“Izatearen apologia eta honen aldarrikapena. Antzerkia ulertzeko modu bat. Beste modu bat. Labirintoan aurrera egiteko arrazoia, eta bitartekoa”. Aurkezpentzat darabiltza hitzok Bada antzerki taldeak. *Traganarru* dute lehen lana eta azaroaren 9an taularatuko dute estreinakoz, Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketan 31. edizioa antolatuko den honetan, hain zuzen.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

Argazkiak: Bada Teatroa

BODYBOARDER batek denboran atzera egin du istripuz. 1912. urtean bizi da geroztik, baina ez da gertatu zaionaz jabetu. Beretzat bereziki prestaturiko entrenamendu gune batean dagoela uste du; fisikoki eta psikologikoki zailduko duen eszenatokia dela inguratzen duen mundua. Ilusio betean, XX. mendearen hasierako errealtate soziopolitiko eta kulturean murgilduko da kirolari modernoak.

Umore absurdoa agintzen du Bada antzerki talde sortu berriak, “zenbaitean surrealista, eta beste hainbatetan tragikoa”, eta gure historiari keinu eginez –galernaren ondorioz, ehunka marinel irentsi zituen itsasoak, 1912. urtean–, biziraupenerako gaitasuna eta gizakiaren burugogorkeria ekarriko digute lehen planora.

Obraren zuzendari eta gidoilari den Urki Muguruzak azaldu digunez, klimatologiari eta aurreikuspen meteorologikoei lotuta dago



Traganarru obraren kartela.

Urki Muguruza: «Nire pasioari energiaren %2 besterik ezin diot eskaini»

Nola ikusten duzu euskal antzerki-gintza orokorki?

Zaila da musutruk lan egitea, gogoaren eta pasioaren bultzada hutsez, etorkizuna zer izango den jakin gabe. Berme minimorik balego, programatzeko erraztasunik, sare eskuragarriarik, diru-laguntzarik, errazago izango litzateke. Baina merkatuaren araberakoa da, eta azkenean, elkarbizitzan baino gehiago, lehian hasi behar baduzu, prozesuko lan guztiak, muntaketa,

marketina, logistika eta gainerakoak, zeure gain hartu behar badizu, antzetzeari, pasiotzat duzun horri,



energiaren %2 besterik ezin diozu eskaini, eta horrek erre egiten du.

Aktore sentitzen naiz, eta nik baino gehiago dakien zuzendari baten esanetan egon beharko nuke logikaz. Aukera hori suertatu ez zaidanez, dena neuk egin behar dut, idatzi, zuzendu, harremanak eta gainerakoak, antzetzeari utzita. Hau ez da oraindik nire tokia. Bestalde, badira zirkuitu alternatiboak zure pasioa praktikan jartzea ahalbidetzen dizutenak: gaztetxeak, kalea...

lana: “Gaur egun erraza da bizpahiru egunera izango dugun eguraldia edo itsasoaren egoera ezagutzea, gutxi gorabehera behintzat. Zientifikoki azaltzen ditugun aldaketa hauek Jainkoaren borondate gisa hartzen ziren garai hartan, eta sineskeria ugari zegoen”.

Baina meteorologoaren atzeko figurarik bazen orduan ere hemen, Muguruzak jakinarazi digunez: “Benetan existitu zen. Elizgizona zen eta Gipuzkoako Foru Aldundirako egiten zuen lan. Orduko komunikazioak ez ziren, ordea, gaurkoak bezain azkarak, eta 1912ko hartan, galerna abisua eman eta kostaldeko bazterretara heldu zenerako, Bizkaiko arrantzale ugari itsaso zabalean ziren”.

Urki Muguruzaren (Zarautz, 1982) zuzendaritzapean, zazpi aktore biltzen ditu *Traganarru* obrak: Iñigo Azpitarte (bodyboarderraren

rolean), Jon Ander Alonso, Iker Etxarri, Erika Olaizola, Gurutze Eizmendia, Inazio Tolosa eta Iñaki Santos.

Traganetik bada beti zer ikasia. “Askotan ez dugu iragana ulertzen”, dio Muguruzak, “protagonistari ere hori bera gertatzen zaio, ez duela gertatzen ari zaiona konprenitzen, baina

berak badu bere egia, errealtatetik aparte dagoena, eta bereari eutsiko dio kosta ahala kosta, bere egia besterik ez balego bezala. Edozein egoeratan alde ona bilatuko du eta bere alde erabili nahiko du”.

Obrak aurreikuspenari eman dion garrantzia ikusirik, igarlearena egitea eskatu diogu zuzendariari, Azpeitiko Topaketetan zer gertatuko den, eta, areago, publikoak *Traganarru* nola hartuko ote duen irudikatzea: “Espero dut topaketa osoak arrakasta izatea. Gure obrari dagokionez, ondo konektatuko dugula uste dut, ez delako itzulitako obra, euskaraz sortua delako, eta hemengo gauzez hitz egiten duelako. Pertsonaia oso identifikagarria da. Bestalde, nahiz eta tragedia baten testuinguruan kokatu, komedia da, barre egiteko da, irauten duen ordu eta laurdenean ondo entretenituta egoteko modukoa. Ikusleak antzokitik gustura aterako direla uste dut”.

Energia eta denbora erruz dedikatu dio taldeak obra honi, “kalitatezko lana egiten dugu, eta baliabide guztiak ditugu. Zer falta zaigu? Emanaldiak lotzea”. Programatzaile eta kultur teknikariengan jarria dute itzaropena, haien babesa ezinbestekoa baitzaie: “Ea berriak garenoi luzatzen diguten begia, gure obrak herriz herri mugi daitezen”. ■





Helduen Literatura | POESIA

Kantu eta olerkiak
Eñaut Etxamendi
Maiatz, 2013

Garai garratzak

GARAI GOZOAK ere bai. Lucien Etxezaharretak, aitzin solasean, ospatu egiten du bizitzaren aurpegi bikoitza. Izan Etxamendiren abesti-letrak, izan prosa zein olerkia, “dena poesia dela bere obran argi da: poesiaren hatsak, hobeki erran haizeak betetzen du, eta poesia kantu zela hasieratik azpimarratzen da edonon”. Liburuak badauka epilogo bat, aski interesgarria, abesti eta poema bakoitza kokatzen laguntzen diguna historiaren eta idazlearen biografiaren argitan. Gehitu dira esku izkribu batzuk ere, bere “idazkera eder eta biziaren dastatzeko”. Azkenik, diskoa dator liburuarekin. Oilo-larrua jartzeko moduko antologia bat, Etxamendi eta Larralderena (Elkar, 1998).

Bere herriaren minberatasunaz, desagertze arriskuaz, apurke- ta ezinbestekoaz jabetu zirenen urgentzia lirikoa ageri da Ezte- renzubiko laborari sentiberari Maiatzek eskaini dion seigarren liburuki honetan. Bihotzera iritsi zaizkigu beste behin Auroraren egilearen primaderak, nafarro oraindik iritsi ez zaizkigunak. Magikoak dira hitzetako asko, 2012an joan zitzaigun Etxamendi- ren herrikide, izenkide eta kintoa izan zen aipatutako Eñaut Larralderekin kantatuak. Carrero Blancoren hilketa aringarriaren inguruan egindako “Yup la la!” himno bihurtu zen, esate batera- ko. Beraz, pentsa dezake batek baino gehiagok, Etxamendirena musika eta literatura bezainbeste izan zen soziologia fenomeno- a. Eta egia da, bulkada eman baitzion belaunaldi hark iraultzari, berrogeita hamargarren hamarkadako gure *beat* formalak ziren, apurka-apurka iratzarri zirenak hegoaldeko derrotatik eta ipa- rraldeko anestesiatik.

Dena dela, liburu hau eskuetan ohartuko da irakurlea lozorro- an zegoen diskurtso bati egokitu zitzaiola tonu bat, erromanti- koa oso, apaindura gutxikoa baina ederra, serioa baina bitalista. Itxaro Bordak aipatzen duen zinezko poesia kantatua aurkituko duzu liburu honetan, minbera, malenkoniatsua, uneka epikoa: “Gure gudarien auzia/ Munduan dagon argia/ Orhoitzpenez josia/ Dezute Euskal jendia/ Euskal jende guzia eta/ Zarete gure guardia”. Poeta adoretu horrek berorrek Euskal Herriari kantatzen dio modu barnekoiagoan, oinaze politikoa eta pertso- nala nahasian: “Orbaizetako menditan geroztikan banabil amen- tsetan”. Amets bat da, izan ere, Etxamendirena, oraindik iratza- rri ez dena, gizakiena eta naturarena. Mundua kantuz aldatu daitekeela uste dutenen argitasuna dauka, eta baita deskripzioa- ko eta sustraitutako lirikarako joera. Konbinazio horretatik jaio dira hitz hauek guztiak, bihotzean min antzeko bat ematen dutenak. ■

Igor Estankona



Aiztoa eta arkatza
Irati Jimenez
Txalaparta, 2013

Idazleen idazteko aholkuak

IDAZLEA izan nahi zenuke eta ez dakizu nondik nora jo? Idazle izanagatik ere, ez duzu artean estilo aproposa aurkitu, eta baduzu zer hobetu, zer ikasi, zer imitatu? Jakin-min handiko irakurlea zara beharbada, idatzi asmorik ez baina autore ospetsuek ofizioan jarduteko ardatzak (eta maniak) ezagutu nahiko lituzkeena...

Kasuotako bat baldin bada zurea, eskuarte beharko zenuke *Aiztoa eta arkatza*. Idazteari buruzko idazleen aholkuak (*autolaguntza gida*). Irati Jimenezek batu eta itzulitako testuak aurkituko dituzu bertan, Antton Olariagaren ilustrazio beti ederrez osatuak.

John Steinbeck, Margaret Atwood, Henry Miller, Ernest Hemingway, Stephen King edota Gabriel García Márquez gogoetak datoz, eskema bertsuari jarraituz: lehendabizi egileari buruzko datu biografiko esanguratsue- nak, eta ondotik idazketari buruzko zenbait gomendio, sarritan dekalogoan. Denetarik aurki daiteke orriotan, ohar zentzuzkoak, komentario sinestezinak, aipamen barregarriak eta perla ugari. Bat esaten hasita, Harkaitz Canok berak hitzaurrean hautatutako bera: “Litera- turan ezer ez dago idatzita”.

Idazkuntzatik harago, liburu hau noranahikoa eta edonorentzakoa dela dio Canok, “lanerako eta bizitzeko jarreraz ari delako. Idazteko estiloaz eta bizitza estiloaz. Literaturaz eta krime- naz. Banitateaz eta inbidiaz. Zeure bizi- tza hobeto kontatzen ikasteaz”.

Pena da euskal autorerik ez dela ageri. ■

Garbine Ubeda
Goikoetxea





Verdiren
Rigoletto

Euskadiko Orkestra
Sinfonikoa.

Zuzendaria:

Miguel Angel
Gomez Martinez.
Bilboko Operaren
Abesbatza.

Zuzendaria:

Boris Dujin.

**Eszena-zuzenda-
ria:** Emilio Sagi.

Bakarlariak:

Elena Mosuc, Leo
Nucci, Ismael
Jordi, Iryna
Zhytynska.

Lekua: Bilboko

Euskalduna

Jauregia.

Data: urriaren
25a.

Brava Gilda

AURRERA DOA Operaren Lagunen Bilboko Elkarte aurtengo zikloarekin, eta zikloan bertan hain garrantzitsua den *Tutto Verdi* proiektuarekin. Irailean *Giovanna d'Arco*-ren txanda izan zen, oso ezaguna ez den titulu eder bat, eta urrian, aldiz, maisu italiarraren lan famatuenetako bat: *Rigoletto*. Nork ez du noizbait tararatu *La donna è mobile* aria hiperfamatua? Ba, opera honekin, musikaren *hit-parade*ko *top-ten* guztiekin gertatzen den bezala, edo zoragarri, edo penagarri. Baina zortea izan dugu, eta, benetan, OLBEk ekarritako bertsioa primerakoa izan zen, batez ere bakarlariengatik. OLBEk eta Lisboako Sao Carlos Antzerki Nazionalak egindako produkzioa txukuna izan arren, ez zen emanaldiaren onena. Soiltasuna askotan txalogarria da, baina soiltasunaren eta pobreziaren arteko muga oso fina izan daiteke, eta kasu honetan gauza gutxi esan daiteke eszenografiari buruz: argiztapena ondo, jantziak ere bai, besterik ez. Inpaktu bisual pittin bat faltan bota genuen. Halere, bertute musikalak dastatzeko aukera izan genuen, sobran. Eta horretan zentratuko naiz.

Miguel Angel Gomez Martinezek graziaz zuzendu zuen Bilbao Orkestra Sinfonikoa. Gure artean ezaguna eta maitatua den zuzendari honek (duela urte dexte Euskadiko Orkestraren zuzendari titularra izan zen) taxuz eraman zuen batuta (nahiz eta batzuetan amore gehiegirekin, estali egiten baitzi-


tuen ahotsak). Bilboko Operako Abesbatza ere fin. Baina luxuzko bakarlariak izan genituen. Elena Mosuc soprano errumaniarrak Gilda paregabea oparitu zigun. Delikatua, sinesgarria, interpretazioaren aldetik; eta oso egokia bere ahots tesiturarengatik. Menderatzen du pertsonaia bokalki, eta horrek ematen dio askatasuna bertsio freskoa emateko. Txalo eta *bravo* ugari jaso zituen, oso mereziak. Halere, Mosuc saioaren izarra izan arren, aipamen berezia egin behar zaio Ismael Jordi tenorearen aktuzioari, Duca di Mantova pertsonaian. Distiratsua izan zen bere interpretazioa uneoro. Alfredo Kraus-en ikaslea izan zen eta nabaritzen zaio, asko. Emisio dotorea, ahots gozoa erregistro guztietan (ze pena justu *La donna è mobile* ariaren azken notan ateratako kiboa). Eta, dena esan behar bada, akats gabeko presentzia du taula gainean edozein galaien rola irudikatzeko. Perfektua. Bestalde, Leo Nucci, Rigolettoren rolean, sendo aritu zen, sakontasuna eman zion pertsonaiari. Eta Iryna Zhytynska mezoak (María José Montiel-en ordeztu, azken honek istripu bat izan zuelako 22an izandako emanaldian) Maddalena ederra egin zuen, nortasun handikoa.

Saio txalogarria, beraz. ■

Montserrat Auzmendi



Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Zareten hauek. Behar bezain on ez dena. 2. Adintsu, zahar. Lehen musika nota. 3. Garoa, iratzeta. Apalki. 4. **Argazkiko hiriburua**. Juntagailua. 5. Urrearen sinbolo kimikoa. Zuloak egin. Burutazio. 6. Oihuka, garrasika. Etekinak, ondasunak. 7. Zola estaltzeko erabiltzen den ehun sendoa. Toki bate-ra heldu. 8. Biki artifiziala. Barnatasun.

Goitik behera:

1. Zeuek. 2. Nafarroako udalerria. 3. Eta abar (laburdura). Sasoiria heldu. 4. Suari dariona. Antzinako lantza txiki. 5. Taninoak. 6. Azao. Einstenioaren sinboloa. 7. Lama. Ar sortzailea. 8. Hizkiak. 9. Zerbaitetan jakinduria duena. 10. Lokarri sendoa. Biologiako Izendegi Normalizatua. 11. Joan den gauean. 12. Gogo bizia, irrika. 13. Zati txiki edo baztergarri. 14. Jaramon. 15. Ogidun.

Kike Amonarrizen umorea

Aldibereko itzulpena

Harvard Unibertsitateko irakasle bat Japoniara joan zen hitzaldi bat ematera. Hitzaldia aldibereko itzulpen sistemaren bidez jarraitu zuten hurbildutako entzuleek. Honelako zerbait entzun omen zuten aurikularretatik:

– Irakasleak txiste moduko batekin hasi du hitzaldia. Ez dakit zergatik, baina Ameriketako irakasle guztiek txiste batekin hasten dituzte hitzaldiak. (Isilunea) Kontatzen ari den txistea ez dago ulertzerik, beraz ez dut itzuliko. Berak, ordea, txistea itzultzen ari

naizela uste du. (Isilunea) Nire aldetik zera proposatzen dizuet: amaitzen duenean, begirunez, denek barre egitea (Isilunea). Amaitzeaz dago. (Isilunea). Orain!

Entzuleek, barre egin bakarrik ez, altxa eta txaloka ere hasi omen ziren! Hitzaldia amaitzean, irakaslea itzultzailearengana hurbildu eta esan omen zion:

– Hitzaldi asko eman dut atzerrian, baina txistek ondo itzuli dizkidan lehen itzultzailea zara. Zorionak!



Sudokuak

Erraza

		3		5	4	7	1	
6	7			9		3		
	8	3		7		5		
7	4			2	8		1	
		7		3				
6	5	1			3	4		
3		4		1	5			
5		2			1	8		
4	6	9	8		2			

Zaila

9			4	8			1	
	4	6				3		
7	8			1				4
4	7				2	6		
		9	1				7	2
2				3			6	8
		5				4	2	
	3			6	4			5

Soluzioak

1	4	6	9	8	5	2	7	3
7	5	9	2	3	6	1	8	4
8	3	2	4	7	1	5	6	9
6	2	5	1	9	8	3	4	7
9	8	1	7	4	3	6	2	5
3	7	4	5	6	2	8	9	1
4	1	8	3	2	7	9	5	6
5	6	7	8	1	9	4	3	2
2	9	3	6	5	4	7	1	8

Erraza

8	3	7	2	6	4	1	9	5
6	1	5	7	9	8	4	2	3
2	9	4	5	3	1	7	6	8
5	6	9	1	4	3	8	7	2
4	7	1	8	5	2	6	3	9
3	2	8	6	7	9	5	4	1
1	4	6	9	2	5	3	8	7
9	5	3	4	8	7	2	1	6

Zaila

Goitik behera: 1. Zuhaitzak, 2. Urta, 3. Erab, 4. Kc, Azkon, 5. Tanuak, 6. Espal, 7. Su, 8. Lera, 9. Adina, 10. Soka, 11. Bati, 12. Uzia, 13. Lits, 14. Kasu, 15. Olin.

Ezker-eskuin: 1. Zuek, Eskas, 2. Urtesu, Da, 3. Ira, Apalki, 4. Habana, 5. Au, Zuhaitz, Bulko, 6. Uluka, Irabazak, 7. Mokea, Irisi, 8. Klon, Sakontasun.

JAINKO TXIKI ETA JOSTALARI HURA SENTIKARIA

Joxan Lizarribar gogoan

HAMAR URTE pasatu dira *Zaharregia, Txikiegia agian* proiektua New Yorken estreinatu zenetik, 2003an izan zen. Oraingo honetan, Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Rafa Rueda, Bingen Mendizabal eta Mikel Valverde berriro elkartu dira, *Jainko Txiki eta Jostalari hura* sentikaria tarteko. Urriaren 3an egin zuten aurre-estreinaldia, Ondarroako Marabilli Jaialdian, eta laster izango da kalean Elkar disketxeak argitaratutako disko liburua. Halaxe azaldu digu Kirmen Uribek: “Joxan Lizarribar *Berriako* presidente ohia hilzorian zela, Mikel Urdangarinekin elkartu nintzen eta Joxanen omenez zerbait egitea erabaki genuen; hura gure lehendabiziko emanaldian izan baitzen New Yorken, eta gure lehenengo jarraitzaile sutsua izan zelako, lehenengoa eta beharbada handiena”. Sentikari berri honek New Yorkera eramango ditu berriro euskal sortzaileok, azaroaren 18an. Urtarrilaren 25ean, berriz, Donostian ikusi ahal izango ditugu.

Zenbait galdera luzatu dizkiogu Kirmen Uriberi:

Nolakoak dira *Jainko Txiki eta Jostalari hura* sentikaria eta disko liburua?

Zortzi kanta eta lau poema errezitatu bildu ditugu disko liburuan. Testu guztiak nireak dira eta kanta gehienak Mikel Urdangarinena. Rafa Ruedak hiru abesti egin ditu. Testuen gainean egin dituzte musika eta kantak, eta doinu batzuk ere sortu dituzte, zenbait poema irakurtzeko. Urdangarinena kasuan, lehenengo aldia du lan molde honetan, normalean musika aurretik egiten duelako, eta gero letra.

Prozesu ederra izan da, asko hitz egin dugu geure artean eta hori nabaria da diskoan.

Zertaz hitz egiten dute kantek?

Testuetan denetarik dago, bada bertso librea, baina baita bertso idatziak ere, koplak... Kolore handiko tes-



DANI BLANCO

tuak dira, oso desberdinak euren artean eta baita kantak ere, oso molde ezbedinekoak. Rock-folk eremuan murgildu gara. Badu puntu tradizional edo folkia, baina oso disko modernoa da.

Poema eta abestiaren arteko lerroa mehea izango da...

Denak dira poemak. Kontua da, poema guztiak ezin direla abesti bihurtu, abestiak neurri jakin bat izaten du, melodian egokiago sartzeko. Bestetik, bertso librean idatzitako poemek beren erritmoa daukate, beren musika, eta hori oso interesgarria da, guk egin duguna hori izan da, poemen erritmo hori indartu musikaren laguntzaz. Diskoa entzuten duenak ez du nabaritu jautzik poema errezitatuaren eta abestien artean. Azkar sartzen da diskoa, entzun erraza da.

Eta interpreteen arabera desberdintasunik badago?

Talde bat gara. Hiru ahots entzuten dira diskoan, Mikel Urdangarinena, Rafa Ruedarena eta nirea. Horrek kolorea eta aniztasuna ematen dio diskoari, baina talde baten moduan funtzionatu dugu diskoa egiteko orduan. Talde osoak egin du lan, eta

horrek batasuna eman dio, eta kolore bat. Uste dut entzuleak eskertuko duela diskoa koloretsua izatea. Ildoa testuen haritik doa eta nabaria da bakar batek idatzi dituela denak. Rafaren gitarra elektrikoa, Mikelen akustikoa eta Bingenen bibolina abesti eta poema guztietan daude, eta horrek batasuna ematen dio. Niretzat oparia da disko hau, halako musikariak prest eta ondoan izan ditudalako.

Musikak hitzen menpe egon behar du?

Ez zait iruditzen, ondo josiak egon behar dira. Sentikari honen hitzek garrantzi handia daukate, oso testu landuak dira, eta hitzak oso presente daude kanta batzuetan, baina musika eta hitza maila berean daudela esango nuke.

Zergatik da hain estua musika eta literaturaren arteko harremana?

Musika eta literatura leku beretik datozelako, dena delako sormena. Hitza ere soinu eginda dago, hitzak edukidun soinuak dira, nolabait esateko. ■

Myriam Garzia



Etxe barruko kutsaduragatik kezkatuta

ORAIN HAMABOST URTE ezagutzen ez zen kutsadura mota bat gero eta gehiago zabaltzen ari da :etxeko kutsadura.

Gero eta denda gehiagotan ikusten dira inguruan usain goxoa sortzeko substantziak, hala nola, hainbat motatako argizariak, intsentsuak edota ponpa bidez tarteka-marteka likido usaintsuak askatzen dituztenak. Baina substantzia horien erabilerarekin batera, asma eta minbiziak ere ugaltu egin dira.

Europako hainbat herrialdetan hasiak dira neurriak hartzen. Ildo horretan, Frantzia produktu guztietako etiketan kutsatzaileei buruzko informazioa ematen hasi ziren 2012an; 2014an, berriz, informazio kanpaina zabal bati ekingo zaio, eta hurrengo urteetan hainbat produktu debekatzea ere aurreikusten da. Bitartean ikerketa publikoak egiten ari dira. Epe motzean, ikastetxeetako atmosfera eta eraikuntzan erabilitako materialak aztertuko dituzte. ■



Sandy urakanaren lehen urteurrena New Yorken



2012KO URRIAREN AMAIERAN Sandy urakanak bete-betean jo zuen New York. 45.000 milioi euroko txikizioak eta 210 hildako, horietatik hondamendiak utzitako kopuruak. Hiriko biztanleek kezka ugari dute orduz geroztik. Batetik, eraikin publiko batzuk berritu beharra dago, South Ferry metro geltoki eredugarria esaterako; 500 milioi euroko kostua izan zuen eta, txikituta

geratu zenez, beste hainbeste behar izango dira berritzeko.

Bestalde, Sandyren eraginez urak hartutako altuera inoizko garaiena izan zenez, gero eta biztanle gehiagok erabaki dute Manhattaneko lurak uztea. ■



Klima aldaketaren eragina gehien jasango duten lurraldeen mapa

Gai honi buruz asko hitz egingo dugu hurrengo hilabete eta urteetan. Aurrerapen gisa, AEBetako Stanford Unibertsitateko ikerlari talde batek egindako mapa. Bertan, aldaketa klimatikoaren eraginez arazo handienak jasango dituzten lurraldeak adierazten dira.

ttiki.com/56583

(Ingeleseaz)

Saturnoren edertasuna

Cassini zunda 1997. urtean abiatu zen Lurretik Saturnorantz, eta 2004az geroztik hango atmosferan orbitatzen ari da. 2017an amaituko da haren misioa, baina bitartean irudi ikusgarriak bidaltzen ari da. Oraingoz bidalitakoak ederrak izan dira, baina zientzialariak ezustekoen esperoan daude oraindik, laster eraztunen inguruan kokatuko baita zunda.

ttiki.com/56584

(Frantsesez)

Teleportazio kuantiko arrakastatsua

Ikerlari japoniarrez eta alemaniarrez osatutako talde batek bit kuantiko fotonikoen transmisioa lortu du Tokion egindako saiakuntza batean. Oso urrutitako oraindik gizakiaren teleportaziotik, baina telekomunikazioen alorrean oso bide interesgarriak zabal daitezke saiakera honetatik abiatuta.

ttiki.com/56585

(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Artaputza

PARE BAT HILABETE izango da, sukaldari landarezale batek galde-tu zidan: “*Huitlacoche* mexikarra hemen ekoitzi al genezake?”. Izen hori aztekek erabiltzen dute beren nahuatl hizkuntzan, artaburua erasotzen duen *Ustilago maydis* onddoari esateko. Mexikon arto sailetan hazten den gutizia gastronomia. Mundu guztiko jate-txeetan gero eta gehiago erabiltzen dute. Eta nire erantzuna: “Ez, ez, kanpoko gaitz kutsatzaile bat ekarri eta betirako hedatuko genuke”. Handik astebetera lagun batek hor jartzen du Facebooken bere sailean artaburu baten argazkia, “zer da hau?” galdezka: *Huitlacoche*-a Nafarroan! Buru hori jasotzeko eta neuk hartu nahi nuela esan nion. “Gaitza hemen dugu”, idatzi nion sukaldariari.

Horrek barrenak mugiarazi zizkidan. Batera eta bestera. Onddo horren atzetik egin dudan prozesioaren ibilbideko kantoï guztien maparekin ez zaitut aspertuko. Bi hilabete horiek nire kolkorako. Kolkorako, etxean amaitu baitut. Kaiku ederra ni. Artaputza izena du onddoak. Artaleari erasotzen dionean enduritu eta tumore amor-

fo baten antzera sortzen du, grisa, gerora beltza. Aspaldikoa da artaputza, mendeak izango dira artoarekin Ameriketarik etorri zela. Espainian 2002an ospitale bateko giroa ebaluatzen egindako ikerketa batean, bertan topatutako esporea l e r g e n o e n artean, artaputza-
ren generokoa zen bigarrena.

Onddo uzta zabala da udazkenean. Bakoitzak berea. Zale batzuek bi, hiru, lau perretxiko bildu eta besteak hor uzten dituzte. Beste batzuk zientia erdi bat mota bereizi, bildu eta jateko gai dira. Okerrenak, hala ere, ezagutzen ez dituztenak “txartzat” hartu eta ostikoka edo makilakadaka jotzen dituzten kaikuak dira. Perretxikoe-tako hau, non ez da gertatzen? Izan ere, kaiku eta kirten...

Lehenengo batean beste kaikukeria bat... Duela ez asko munduko chef



LORENZO EIZMENDI

onena aukeratu zuten euskal herri-tarra, Donostian ospatzen den gastronomia feria handian. Artaputza aipatu zuen. Mexikon baino hazten ez dela esan zuen. Geurean, hego haizea baino zaharragoko izena du: artaputza. Bere inguruko soroetan ez da asko ibiltzen munduko chef onena. Ahoa neurri hitz egiten dute, gero, bertako produktuez, harro. Mozkinetatik urrun. Harroputz.

Artaputza astaputza eta gastronomia astonomia. Batzuetan... ■



Amatza

Bukatzen ez den lana da amatzakoa. *Corylus avellana*, hurritza adibide. Hurrak heldu eta askatu berriak ditu, irail-urri aldera. Ondoren negurako antolakizunetan sartu da: hostoak janariz hustu eta erreserbak osatu. Horretarako hostoetako klorofila jasotzen ari den artean, ordea, dagoe-nerako hurrengo urtean du burua. Hurrengo urteko hurrak izango direnak sortzeari eman da. Loratu egingo da, horra argazkian lore arren gerbak izango direnak. Horiek zimeltzerako lore emeak irekiko ditu. Lore emeak, ernaldutako eta begien barruan babestuko ditu. Begi horietan igaroko dute negua. Udaberrian zabaltzean hostoekin batera aterako dira fruitu bidean izango diren lore horiek. Etengabeko amatza. Loraldirako izerdi kolpea aprobetxatu behar da hurritza mozteko: makiletarako, pardetarako... Eta bigu-na, malgua izatea nahi dugunez, ilgoran. ■



JAKOBA ERREKONDO

Lehen Mundu Gerra beranduegi amaitu zen



US WAR DEPT.



L'UNION

Ezkerrean, frantziar soldadu taldea, Gouraud jenerala buru eta metrailadoreak prest, Marne inguruko eliza baten hautsikinetan, 1918an. Eskuinean, Augustin Trébuchon, Lehen Mundu Gerran hildako azken soldadu frantziarra.

VRIGNE-SUR-MEUSE (FRANTZIA), 1918KO AZAROAREN 11KO GOIZA. Henri Gouraud jeneralaren aginduak betetz, frantziar armadako 163. infanteria dibisioak Meuse ibaia zeharkatu zuen, Hanneton alemaniarren elite unitateari erasotzeko prest. Egun hezea, hotza eta lainotsua zen eta lehen bajak ibaia itota hil ziren. Laino itsua barreiatzen hasi zenean, alemaniarrek izan ziren metrailadoreei eragiten lehenak. Berehala erantzun zuen frantziar artilleriak, eta Lehen Mundu Gerra etenaraziko zuen armistizioa indarrean jarri bitartean luzatu zen gatazka, goiz hartako 11ak arte, hain zuzen. Frantziarren bandoan 91 hildako eragin zituen azken orduko gatazka hark eta denean azkena Augustin Trébuchon izan zen, 40 urteko artzain eta soinujoia.

Iturri batzuek diote 10:45ean hil zutela, besteek 10:55ean izan zela. Kontua da Gerra Handia ofizialki amaitu baino minutu gutxi lehenago jo ziotela tiroa buruan. Gainera, mezularia izanik, Trébuchonek bere unitateko gainerako kideak baino lehen jakin zuen bakea sinatuta zegoela eta gerra, praktikan, amaitua zela. Izan ere, hil zutenean, mezu bat zeraman soinean bere kapitainari emateko. *Rassemblement à 11h 30 pour le ravitaillement* zioen paper zatiak, ordu horretan jan-edanak hartzeko bildu behar zutela, alegia. Aginteak, su-etena ospatzeko, soldaduen artean zopa beroa banatuko zuen. Baina Trébuchonek ez zuen lortu arma-lagunen barrenak zopaz eta

pozez berotuko zituen mezua helaraztea.

Trébuchonen hilarran jartzen du soldadua azaroaren 10ean hil zela. Dirudienez, egun hartan hildako beste hainbat soldaduren heriotza data ere egun bat aurreratu zuten. Agintari militarrek ez omen zeuden oso harro, su-etena adostu eta gero ere soldaduek gatazkara bidali izanaz. Armistizioa egun hartan bertan sinatu zen, goizaldeko 5ak inguruan, baina bi egun lehenago alemaniarrek amore eman zuten negoziatzioetan eta, praktikan, erabakia hartuta zegoen.

Azken baja militar frantziarra izanda ere, Trébuchon ez zen izan eroritako azkena. George Lawrence Price kanadarra 10:58ean hil omen zen, eta Henry Gunther estatubatuarra 10:59ean. Galtzaileen alderdiko azken hildakoaren izenik ez dakigu, baina britainiar kapitain baten oharren arabera, 11:15ean soldadu aleman bat hil zuten metrailadorearekin tiro egiten jarraitzen zuelako. 1918ko azaroaren 11 hartan, Lehen Mundu Gerraren azken orduetan, 8.206 zauritu eta 2.738 hildako izan ziren ofizialki, baina frantziarrak behintzat azken hildako kopurua estaltzen saiatu zirela kontuan izanik, pentsatzekoa da benetako zifra handiagoa izan zela. Zenbat milaka bizitza salbatuko zatekeen menia adostu zuten une berean sua eten izan balute? Huskeria, gerrako lau urteetan hildako milioika pertsonarekin alderatuta. ■



Arrastoak Nondik dator Gaztela- Mantxaren “mantxa”?

1982AN, autonomia estatutua onartzean, lehen Gaztela Berria zena Gaztela Mantxa bihurtu zen. Mantxa toponimoa askoz zaharragoa da, ordea. 1691n Mantxa izeneko probintzia sortu zen Iberiar penintsulako mesetan, baina toponimo ofiziala izan baino lehen ere, askoerabiltzen zen inguru haietan; mende horren hasieran, Cervantesek bere maisulanaren izenburuan bertan adierazi zuen On Kixote Mantxakoa zela.

Toponimoa ez dugu gaztelaniatik itzuli behar —ez du “orbana” esan nahi—, arabieratik baizik. Zenbaiten arabera, *Manxa* edo *Al-Mansha* hitzean du jatorria, eta “urik gabeko tokia” esan nahi du. Beste batzuek diote *Manya* hitzetik datorrela, eta beraz, “goi-ordokia” edo “goragunea” pñ.esan nahi duela. Horrenbestez, toponimoaren jatorria Erdi Aroan dago, XIII. mende inguruan, arabiarrek penintsularen erdialdea konkistatu zuten garaian. ■



LOURDES CARDENAL

JON MIRENA LANDA

«Beste bake prozesuetan bezala, gurean ere egia da gakoa»

Portugalete, 1968. Bilbon hazi zen eta Durangon bizi da. Zigor zuzenbideko irakaslea da Leioako unibertsitatean, EHUn. Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen zuzendari izana da. Egun irakaskuntzan dihardu buru-belarri. Zuzenbide penalaz, giza eskubideaz eta egoera politikoa alda lezakeen prozesuari buruzko bere hausnarketak ekarri ditugu hona.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco

PAROT DOKTRINAZ eta Inés del Río euskal preso politikoaren kalera-tzeaz egin dugu berba, eta orobat, Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiaren erabakiak jendartean sorrarazi dituen erreakzioez. Erantzun mamitsuak eman dizkie gure galderei. Gertaeren abiadurak erantzun horietako asko iraungiarazi du. Estrasburgoko Auzitegiak doktrinaz ezarritako epaiak zabaldu duen aro politiko berriaz bere ikuspegia ekarri dugu hona.

Parot doktrinaz hitz egitean Zigor Zuzenbidearen esparruan aritzen gara. Nolakoa da Zuzenbide Penalaren egoera gaur egungo justizian?

Azken hogeitaz urteetan Zuzenbide Penal gero eta gehiago erabiltzen da. Justiziaren kontrol sisteman –zuzenbide zibilarren, administratiboaren, gizartearen kontrolaren edota hezkuntzarekin alderatua– abusatu egiten da. Zuzenbideak gizartearen jardun eremuak moldatu behar ditu, mailuaren mehatxuez justizia ezartzea ez da ona. Ona izateko neurritz erabili behar da. Gizartean Zuzenbide Penalaz abusatzen bada, gizarte autoritarioa bilakatzen da halaberharrez.

Espainiako Estatuan eta euskal gizartean, orobat, nabariagoa da akaso?

Ez bereziki. Oro har, Europan, Zuzenbide Penal tresna politiko azkarra bilakatu da. Boteretik era-



Estrasburgoko Auzitegiaren erabakiaz

ERABAKIA oso ona da. Estrasburgok –giza eskubideen sistematik orobat– gutxieneko eskubide batzuk baino ez ditu kontuan edukitzen. Estrasburgok arrazoia ematen ez badizu ere, horrek ez du esan nahi arrazoirik ez duzula. Alegia, giza eskubideen estandarra gutxieneko sostengurik gabe gera daiteke. Kasu honetan Estrasburgoko auzitegia minimo horietara heldu da. Handitu du babes estandarra. Argiago esateko, orain arte Estrasburgotik delituak eta zigorrak nola definitzen diren kontrolatzen zen asko, baina soilik legeari dagokionez. Aldiz, gutxiago begiratzen zitzaion behin kartzela barruan gertatzen zenaren inguruan. Epai honen bitartez, ez da bakarrik kodean dagoena kontrolatuko, baizik eta kodea aplikatzen denean, pertsona kartzelan dagoenean, egiten diren espetxe politikari buruzko esku-hartzea izango da. Erabakiak bermeak ezarri ditu espetxe barruan, ez da formaltasunetan geratu, iraganean geratzen zen legez.

biltzen da eta askotan maula [iruzurra] egiten da. Erraza da legea onartzea, baina legeak arazoak konpontzeko balio ote duen hobeto aztertu beharko litzateke. Adibidez, legeak ezarri baino, diru gehiago jarri beharko litzateke hezkuntzan. Ordea, arazoak daudenean, Estatuak penalera jo ohi du jendea lasai egon dadin. Noski, kasu guztietan erabiliz gero ez da lasaigarria, aitzitik, Zuzenbide Penalak arazoak sorrarazten ditu.

Nazioarteko Zuzenbideak edo Europakoak nola lagundu dezake normalizazio politikoan eta bake prozesuan?
Ez dakit Estrasburgoko Auzitegiak lagundu dezakeen gai horietan guz-

tietan, gauza batzuk kontrolatu ditzake baina beste batzuk ez. Estrasburgok gutxieneko batzuk ezartzen ditu, baina minimo horietatik gora ez dauka kontrolatzeko modurik. Adibidez, presoan sakanatzea neurri estandarra da nazioarteko legedian, presoek ahalik eta hurbilen egon behar dute etxetik, familiarekiko eta gizartearekiko loturak ez apurtzeko. Baina hori ezin da egikaritu auzitegiaren bitartez. Europak zentzu moral politikoa lantzen lagundu diezaguke. Alegia, neurri estandarrek eskubide bilakatu ezin diren arren, Estrasburgoko erabakien bitartez, erabakiek eztabaida publikoa elikatu dezakete. Zuzenbidearen borroka horixe da: arrazoia baldin badugu, arrazonagarria den neurrian, giza eskubideen estandarrek gure alde badaude, nazioarteko iritzian eragiteko behin eta berriz ekin dezakegu eta europarren iritzia aldekoa bihurtu. Horrek presioa askatu eta indar korrelazioa aldatu dezake hemengo politikan, baina ez auzitegiaren erabakien bitartez.

Parot doktrina indargabetuta ere, Espainiako Estatuaren espetxe politikak oztopoa izaten jarraitzen du normalizazio prozesua bideratzeko.

Bai. 1995eko Zigor Kodean *Parot doktrinaren* espiritua dago, beraz pena horiek ezarriko dira. Odol delitua dutenek 30-40 urte bete beharko dituzte. Henri Paroti zigor batzuk kode berriarekin ezarri zitzaizkion eta horregatik iraunarazten dute kartzelan. *Parot doktrinak* 100 preso inguru jo ditu, beraz 500 inguru geratuko dira barruan.

Arazo handia aurrera begira.

Arazoa presoak bloke bakarrean jardutean dago. Espetxe politikan borondatea balego, blokean hartu beharrean, dituzten delituen arabera politikak eginez baizik, presoan egoera desblokeatzen hasi liteke. Ez da gauza bera bospasei lagun hil dituen pertsona, eta legez kanpo utzi zuten talde politiko bateko kide izatea. Beraz, delitu ezberdinak daude eta modu ezberdinez aztertu beharko litzakete: nork du odol deliturik? Nork ez? Eta horren arabera espetxe politikak aldatu. Odol

delituak ez dituzten pertsonak laster egon litezke kalean, hirugarren graduarekin edo askatasun baldintzatuan. Euren delituen munta ez da hainbesterakoa, erantzukizun zibila ordaintzeko prest baleude neurri estandarrean egongo lirateke. Betiere, egindakoak gutxi gorabehera konpontzeko prest baleude eta ez badute delitu egiteko arriskurik sortzen. Eta orain, ETako presoek ez dute delitu egiteko arriskurik, ETA ez dagoen neurrian.

“Egia azalarazten ez den bitartean ez da indar korrelazio politikoa aldatuko”

Delitu larriak dituzten presoan egoera badago bideratzerik, zigor osoa ez betetzeko?

Preso horiekin beste politikak egin beharko dira. Esan bezala, presoak desberdin sailkatuko balira, pertsona horien blokea txikiago litzateke. Kopurua gutxitzen joango litzateke zigor zenbakietan, eta aldi berean, horiek hurbiltzeko modua azter liteke. Politika arrazionalagoa bideratzeak sufrimendua leuntzen lagunduko luke. Hala ere, ez dega gun pentsa horiek guztiak bihar kalera aterako direnik, batzuek oso delitu larriak egin baitituzte. Estrategia gutxieneko bat beharko litzateke, pixkanaka, bestelako espetxe politika bat bideratzen hasteko.

Nola ikusten dituzu presoek azken bi urteetan emandako urratsak.

Funtsezko urrats gutxi eman dute. Gaiari serio heltzekotan, ezin da bloke politikarik egin. ETak heldutasuna onartu behar die presoek, ETakide presoak ez dira bloke bat. Pertsonak dira. Estatuak espetxe politika alda dezan behartzeko, bloke izaerak desagertuz joan behar du, jendeari bere buruaren jabe izatea aitortu behar zaio, preso bakoitzak bere urratsak eman ditzan. Ukatu ezinezko urratsak dira. Presoek keinuak egin ditzakete, hala nola, erantzukizun zibila ordaintzeko prest daudela esatea eta mina egin dutela aitortzea.



“Estatuak espetxe politika alda dezan behartzeko, presoen bloke izaerak desagertuz joan behar du espetxean”.

Zerk tratatzen du hori ahalbidetzea?

Espetxe politika konfrontazio ideologikorako tresna bilakatu da. Estatuak garaipena lortzeko erabiltzen du, garaipen ideologikoa. Areago, garaipen ideologikoaz haratago joan da, giza eskubideen etika gainditu du. Alegia, delituek erantzukizuna behar dute, baina horrek ez du preso bere ideologiari uko egitera behartu behar. Estatua urrunegi joan da. Baina, halaber, ETAk Estatuaren espetxe politika erabili du presioa egiteko, bere politika egiteko, preso kateatuta edukitzen lagundu du.

Euskal esparru politikoan non daude zuzenbidearen eta legearen mugak? Aukerarik al dago aurrera egiteko?

Beste bake prozesuetan gertatu bezala, gurean ere, egia ezagutzea da gakoa. Egia azalarazten ez den bitartean ez da indar korrelazio politikoa aldatuko. Politika batzuk bideratu behar ziren, eta kontziente izan gara Estatuak horren ardura zeukala —baita interes politikoa ere, noski— denok jakin genezan zer gertatu den. ETAk hildako pertsonen kontabilitatea egin da, eta ondo dago, alde hori oso txarto baitzegoen. Baina dena ez dago Espainiako Estatuaren esku. Herri honetan gauzak aldatu nahi izanez gero, euskal gizarteari ezaguta-

razi beharko zaizkio Estatuak sortu dituen biktimak, estaliak utzi dituen gehiegikeriak. Horretarako kapaza izan beharko genuke. Egiaren parte hori azalarazteak alda litzake indar korrelazioa eta eztabaida politikoa. Eta hori egiteko ezin ditugu epaileak erabili, baina legea erabili dezakegu. EAEn eskumen nahikoa daukagu egiaren aldeko mekanismo txikiak martxan jartzeko.

**“Denon egia
azalarazten diren
neurrian errelatua
orokorrean aldatuko da”**

Hasi daiteke hori bideratzen, beraz.

Badago hastapen oso txikitxoak, apala. Eusko Legebiltzarrean 2012an onartu zen dekretua. Dekretuak giza eskubideen urraketa batzuk babestu zituen, 1960-1978 urteen artean. Tresna horrek bidea zabaldu du. Jaurilaritzak onartu zuen eta politika hori abian dago. 100 biktima azaldu dira, baina dekretu hori birmoldatuko balitz, 2013 urtera arteko biktimen kasuak aztertu eta babestu lirateke. Poliziak, haren baimenaz edo bultza-

daz, eta inkontrolatuek egin zituzten giza eskubideen urraketa modu ofizialean ezagutarazi daitezke. Mekanismoa sortuta dago eta bi baldintza behar ditu funtzionatu dezan: bat, alderdi gehien aldetiko joko garbia. Denon adostasuna lortzea zaila da, baina adostasun nahikoa lortuta aurrera egin liteke, giza eskubideen esparruan beto eskubiderik ez dago eta. Bi, joko garbia diot, alderdi bakoitzak onartu beharko baitu ezin diola bere kontakizuna besteari inposatu, nor bere errelatuan oso sinetsia baitago.

Alderdiek eman behar dituzte urratsak orduan.

Bai. Baina egia-mekanismoa ez dago alderdien barruan eratzerik, erakundeetan baizik. Alderdiek mekanismoaren kontrola nahi dute beren esku. Zentzu horretan, esaterako, ezker abertzaleak onartuko balu bere jendea —bere jende askok giza eskubideen urraketa nozitu baititu— mekanismo instituzionaletara joatea, efektua itzela litzateke. Baina hori ezin da egin esanez “goazen denok batera”. 4.000 lagun salaketa egin ez adibidez. Hori prozesu baten bidez egin behar da, joko garbia egin ez, itunduta, alderdien arteko egia-mekanismoa sortuz, hiruzpalau urte-

Ezker abertzalearen jarreraz

PAROT DOKTRINA deuseztatu ondoren ezker abertzalearen jarrera adimentsua izan da. Lehen Estatuak gehiegikeriak egiten zituen, eta ETak ekintza injustuak egiten zituen berriz ere. Gorpil zoroan geunden. Orain ez dago hori. Egurra ematen duenak –Estatuak orain– defentsarik gabeko corpus sozial bat aurrean baldin badu, corpus hori azkenean kontra bihurtuko zaio. Dagoen sufrimendua izanda, legeak muga dauka. Orduan beharrezko da prozesu bat sortzea beste mugiarazteko, eta ezin baduzu sortu, gutxienez, baldintzak sortu behar dituzu zure esparruan. Ezker abertzalea horretan ari da. Zorritzarez, joera hegeliarrak oso hedatu dira, pragmatikoagoak izaten ikasi behar dugu. Lehenbailehen eta adimenez jokatzeko hobe.

tan. Horren bukaeran Estatuak egin-dako giza eskubideen urraketak azalarazita baleude ez al geundeko denok askoz hobeto izango?

Justizia trantsizionala landu behar dela entzuten da gero eta gehiago. Zer da berau?

Batzuek justizia transtzionala deitua ukatzen dute, pentsatzen baitute ezker abertzaleak proposatua dela. Beraz, kontra daude. Bestetziek uste dute hemen ez gaudela trantsizioan, ez garela diktadura batetik demokrazia batera aldatzen ari. Justizia transtzionala Latinoamerikan eta Ekialdeko Europan sortu zen. Iraganeko sarraskien gainean justizia egiteko zuzenbidearen arlo berria da. Justizia trantsizionala ez dago trantsizio politikoein zentzu hertsian lotuta. Bere helburua –horretan bat etor gaitezke denok– herri batean bideratu gabe gelditu diren giza eskubideen urraketa larriak konpontzeko ahaleginetan ari den gizartearen aldeko zuzenbidea martxan jartzea da. Dena den, norbaiti justizia trantsizionalaren

izena gustatzen ez bazaio, bazter dezagun eta dei diezaiozun justizia.

Zaila da antza, baina zuk normalizazio prozesua hasteko moduak ikusten dituzu, nolabait.

Nolabait. Batetik, zatika bada ere, prozesua gauzatu ahala biktima guztiak hobeto leudeke eta aldi berean kultura politikarako bestelako oinarria ezarriko genuke. Egun martxan dagoen errelatuaren eztabaidan beste era batean jardun liteke. Baina horrek *realpolitik* egitea eta fidatzea eskatzen ditu. Ez da erraza, noski. “Fidatuko naiz ezker abertzaleaz?”. “Fidatuko al naiz PSOEz eta PPz?”. “Edota EAJz” diote politikariek. Ausardia eta intelgentzia beharko dira abagune hori sortzeko. Hori sortuko balitz, txikia izan arren, arestian aipatu dudan dekretuaren bigarren urratsa eman liteke, egoera desblokeatzeko. Esaten dugu ez dagoela gure eskuetan, baina badago gure eskuetan.

“Batzuek justizia transtzionala deitua ukatzen dute, ezker abertzaleak proposatua delakoan”

Noren eskuetan zehazki?

Dekretua Eusko Jaurlaritzaren esku legoke, baina etorkizunean lege batean ere pentsa genezake. Alegia, justizia egin nahian ezin badugu justizia penalera jo, ezin badugu epaileen bitartez egin, hori gure eskuetan ez dagoelako, Espainiako Justiziaren administrazioaren pean, eta horiek bestelako ikuspegia daukatelako hemen gertatzen denari buruz, guk, EAEn, gure botere legegilerak jo genezake, eta zatika bada urratsak eman prozesu bat sortzeko. Eta prozesua sortzeak ez du esan nahi inork bere helburuei uko egin behar diotik, bakoitzak bere helburu eta ideologia mantendu ditzala, baina bidean topa dezagun elkar giza eskubideen gaian aurrera egin ahal izateko.

Errelatu osoa egitea zaila da halere.

Gertatu den guztiaren errelatua berehala ez dugu ikusiko. Baina

ETak hil zituen pertsonen inguruan errelatua azalarazteak politika zehatz batzuk ekarri ditu. Ni sinetsita nago, beste egiak ere, denon egiak, azalarazten diren neurrian errelatua aldatuko dela. Kapazak bagara gertatu dena azalarazten errelatua aldatuko da berez. Jendeak ikusten badu norbait torturatu edo hil zutela, talde terroristaren bitartez, diruz ordainduta, Lasa-Zabala kasuan ikusi dugun bezala, jendearen ikuspegia aldatzen da. Egoera aldatzen joango da bakoitzaren ideologiaren gainetik eta bakoitzari zor zaion errespetua bermatuz.

Espainiako Estatuak onartuko al du tortura praktikatu dela?

Torturarena izango da arazo handiena, Estatuari aitortzea gehien kostatuko zaiona, nahiz eta aspaldi honetan Konstituzio Auzitegia, Auzitegi Nazionala eta Gorena, ez sistematikoki, baina behin baino gehiagotan esaten ari dira “ezin dugu esan torturak izan direla, baina ez da ikertu behar bezala”. Aitortzen ari dira beste alde batera begiratu zutela. Baina torturaren gaian ere bigarren fase batera pasatu beharra dago. Lehen fasea egon da, ikuspegi politikotik begiratuta, talka egon da: “Tortura egon da, bai ala ez?”. Orain torturaren inguruko datuak ofizialdu beharra dago. Badaude bi muturreko tesi: Barne ministroak “ez da egon” esan ohi du. Egon dira epaileek kondenatutako kasuak, hamabi kasu kode zaharrarekin zigortuak. Kode penal berriarekin bat bera ere. Ofizialki ez dago tortura 90. hamarkadatik aurrera. Aldiz, beste batzuek 10.000 salaketa dituztela diote, batzuek epailearen aurrean eginak, bestetziek modu ofizialean aurkeztuak. Zer da zero eta 10.000? Beraz, egia-mekanismoa sortu behar da eta horretarako auzitegiko medikuaren protokoloak daude. Alegia, guri kontatzeak ez du balio, baino epaile mediku bati kontatuak bai. Noski, ez da mekanismo perfekturik izango, baina bi muturreko datu horiek zehazteko bidean sartu daiteke torturaren gaia. Tarteko bide hori zabaltzen badugu, gure “onda-rea” izan daiteke. ■



VERONICA YUQUILEMA

«Hirian herri indigena aldarrikatzen ari gara»

“Kaypi mi kanchi komunitateko kide naiz, Quiton (Ekuador) osatzen ari den kitxua komunitatekoa. Gure hizkuntza suspertzea dugu helburu baina baita hiriburuan komunitatea aldarrikatzea ere, gure jatorrizko lurra Ekuador guztia dela uste dugulako”. Veronica Yuquilema ikasleak bere buruaz egindako aurkezpena da. Garabide eta HUHEZIren Jatorrizko Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak graduondokoan parte hartzen ari da.

| IURE EIZAGIRRE |

Nondik hirian kitxua hizkuntza eta komunitatea aldarrikatzeko beharra?

Hainbat azterketa egin da eta, besteak beste, nekazal eremuetatik hirirako migrazioa ikusita, uste dugu hirigunean ere aldarrikatu dezakegula gure komunitatea. Hiriburuan kitxuaz egiten duen komunitatea izatea hirigunea gure jatorrizko herrien eremua dela aldarrikatzeko modua da. Horregatik ari gara hirian herri indigena aldarrikatzen.

Komunitateko kide guztiak zarete kitxuak?

Komunitatean gauden gehienok kitxuak gara baina denok ez dugu kitxuaz egiten, arrazoi ezberdinetatik: landa eremutik hirirako migrazioagatik, migrazio horretan



IURE EIZAGIRRE

“Uste nuen kapitalismoa ez zen beste sistema bat zenutela hemen. Hizkuntzagatik hainbeste borrokatu duzuela ikusita uste nuen bestelako agertoki batean izango zela, komunitarioagoan”.

gurasoek seme-alabei kitxuaz hitz egiteari utzi ziotelako eta hiri handietan hezkuntza espainieraz baka-rrik delako.

Hainbat zentrotan hezkuntza elebiduna dago baina hauetan

kitxua irakasgai bat besterik ez da, ez dituzte matematika, literatura eta gainerakoak kitxuaz ematen. Hori izan da Ekuadorko hezkuntza elebidunaren egituraren arazo handietako bat.



Eskoriatzan graduondokoa ikasten ari diren hiru ikasle: (ezkeretik eskuinera) Bonifacio Iturbide nahualt komunitatekoa, Veronica Yuquilema eta Suna Altun kurdua.

Urteetako arazoa da orduan, denbora da-eta Ekuadorren hezkuntza elebiduna ezarri zela.

Konstituzioaren arabera, kitxua hizkuntza koofiziala da herrialdean eta Ekuador nazio- eta kultur-anitza da. Estatuak kontuan hartu beharko lituzke bi ezaugarri horiek, baina errealitatean ez du egiten.

90eko hamarkadan, gutxi gorabehera, hainbat borroken emaitzak ezagutu genituen, horien artean hezkuntza elebidunarena. Urteekin, erabakiak hartzeko autonomia eskasa izatetik gobernuaren menpe ego-tera pasa da, beraz, egun nahiko egoera kritikoan dago hezkuntza elebiduna. Eskaintzen duten zentro gehienak nekazal eremuetan daude, eta gutxi batzuk bakarrik erdigun-ean, hirietan. Migrazioak eman ez den nekazal eremuetan mantendu egiten da hizkuntzaren transmisioa. Eta uste dut gure komunitateak horregatik jarraitzen duela bizirik, komunitateetan kitxuaz hitz egiten jarraitzen dutelako seme-alabekin, aiton-amonekin, gurasoekin... Hirietan batzuetan mantentzen dute jarrera hori baina askoz zailagoa da, jende asko bizi den guneetan hezkuntza espainieraz bakarrik delako.

Zuk zeuk non ikasi zenuen kitxua?

Ez nuen inoiz hezkuntza kitxuaz jaso, dakidana nire gurasoengandik,

aiton-amonengandik eta egungo ingurunearengandik jaso dut. Hirian bizi izan nintzen eta diskriminazio asko jasan behar izan nuen. Eta hala ere, nire gurasoek ez zidaten inoiz esan kitxua ez hitz egiteko, nire arropa ez janzteko edo landa eremuetara ez joateko.

“Presidenteak kitxuaz igortzen dituen mezu guztiak gobernuaren alde onak azaltzeko eta estatuaren egituraz hitz egiteko dira, eta hori gu menperatzen jarraitzeko beste modu bat besterik ez da”

Beraz, familia bidezko transmisioa ezagutu duzu.

Hori da, orain arte komunitatean egon garenontzat garrantzitsua izan da familia bidezko transmisioa. Hori eta egunerokotasunean norbera kontzientziatzea. Eta hala ere, Euskal Herrira heltzean ohartu naiz zenbait gauza alde batera utzi ditugula: espainieraz idazten jarraitu dugu, espainieraz pentsatu eta idatzi dugu edo batzuetan espainieraz pentsatu eta kitxuaz idatzi dugu.

Hizkuntza alde batera uzten ari diren komunitateko kideen kasuan, nola ohartarazi hizkuntza mantentzearen garrantziaz?

Oso zaila da. Gu, komunitate gisa, ekintza nahiko zehatzak egiten hasi ginen. Horietako bat hizkuntzari prestigioa emateko bideo batzuk izan ziren. “Agian 90eko hamarkadan ez zegoen unibertsitatean indigena askorik baina gaur egun bada go prestatutako jendea” mezua zabaldu nahi izan genuen ikus-entzunezkoaren bitartez. Izan ere, jatorrizko hizkuntza guztiei gertatu zaie prestigio faltarena: gurea dena ukatu dugu, garenak ez du baliorik ez zentzurik, ez da aurrez ezarritako egituraren barruan sartzen, guk herri moduan ez dugu lekurik eta ondorioz garena ukatu behar dugu hiri barruan gure lekua hartzeko. Sistemak eraman gaitu horretara.

Eta aipatu dituzun bideo horiek nola-ko harrera izan zuten?

Nire aitak ikastetxean erakutsi ditu, izan ere, gero eta hedatuago dago eskolan espainieraz irakastearren ideia, etxean erakutsiko dietelako kitxua. Ez da horrela, ordea, dena prozesu bat da.

Bideoak erakusten zituenean jendea gertatzen ari zenaz ohartzen hasten zen, izan ere, gu ez gara jabetzen gure hizkuntzak desagertzen ari direla, ez dago hizkuntzaren arazoaren kontzientziarik. Egoera arazo moduan aurkeztuta, jendea ari da gauzak pentsatzen eta gertatzen ari denaz jabetzen. Komunitate gisa pixka bat indartzen eta zenbait gauza aldarrikatzen lagundu digu horrek, hainbeste diskriminazioak geure burua ukatzea eragin du-eta.

Hainbat hizkuntzak elkarbizitzen duten eremuetan, gero eta ohikoa goa da haiek nahastea. Nola bizi duzue hori zuenean?

Gurearen moduko eremuetan landu beharreko arlo asko daude, adibidez, familia bidezko transmisioa, corpusa, hedabideak, hezkuntza... Bide batzuk har ditzakezu baina ez dituzu denak maila berean garatuko; hemen, esaterako, terminologia garatu da, hiztegiak daude, baina batzuetan pertsonak hitzak bilatzea

bera landu beharreko prozesu bat bihurtzen da. Komunitateetan kitxuaz hitz egiten dutenean, batzuetan espainierazko hitzak erabiltzen dituzte: 'computadora' eta 'celular' hitzek badute itzulpena baina oraindik erabili egiten dira, sortutako hitzak ez direlako egunerokotasunera egokitzen. Ez dago corpusean aritzen den talde finkorik eta honelako gauzak zintzilik geratzen dira.

Gainera, mundu globalizatu honetan beste herrialdeak ezagutzeko balioko diguten hizkuntza nagusiak ikasten murgildu gara, geurea ahaztuta.

Oraindik ere badago maila baxuko eta estatusa ematen duten hizkuntzen ideia, oraindik egiten da hizkuntzen hierarkizazio hori. Noski, hizkuntza gutxiak beheko mailan daude, beraz, komunitateetakoek, nekazal eremuetakoek, hitz egin behar dituzte eta hirietakoek ez lituzkete erabili behar atzera eginazten dutelako.

Guk oraindik bizi dugu egoera hori nahiz eta gobernu hasi den jatorrizko hizkuntzak erabiltzen politizatzeko, hau da, ez hizkuntza indartzeko baizik eta mende baldeko gizartearen pentsaera ezagutzera emateko.

Hori hizkuntza bultzatzeko hartutako erronkaren baitako beste borroka bat da, izan ere, Ekuadorko presidentek erabiltzen du kitxua, hitz batzuk egiten ditu. Ekuador nazio- eta kultura-anitza izanda, presidentek hitz egiteko betebeharra du, ez da ari guri mesede bat egiten, baizik eta estatuko 13 hizkuntzak menperatu beharko lituzke, ez kitxua bakarrik. Kitxuaz igortzen dituen mezu guztiak gobernuaren alde onak azaltzeko eta estatuaren egituraz hitz egiteko dira, eta hori gu menperatzen jarraitzeko beste modu bat besterik ez da.

Quiton kokatu behar dugu eratzen ari zireten komunitatea. Hainbeste milioi biztanleko hiri batean, nola bildu?

Abantailak eta desabantailak ditugu. Abantailetak bat da jende asko dagoela, hainbat probintziatik Quiton ikastera edo lanera joandako indigenak. Komunitate barruko jendearen ehuneko txiki batek dagoeneko lortu du unibertsitate titulua eta honek ahalbidetu du hainbat helburu komun finkatzea. Ikasketa garaian baztertuta sentitzen zara: hiri txiki batetik zatoz eta han zure komunitatera joan eta etxera itzul zintezke, hirian ezberdina da. Hori genuen komunean: gure komunitatea berriro elkartu nahia, eremu handi hartan, abstrakzio handiak zituen ingurunean eta giza-kia bere baitara bultzatzeko bide asko eskaintzen dituen eremuan.

“Gero eta hedatuago dago eskolan espainieraz irakastearen ideia, etxean erakutsiko dietelako kitxua. Ez da horrela, ordea”

Testuinguru horretan talde bat sendotzea lortu genuen. Hasieran hamar ginen eta jende gehiagori zabaldu nahi izan genion komunitatea baina beste helburu batzuekin heldu ziren gugana: lagun taldea izatea hirian, taldea politikaren eremura eramatea... Egun 15-20 pertsona gara, gehienak gizarte komunikazioen alorretik datoz.

Prozesua apur bat konplexua da, sistema indibidualista eta lehiakor batean heziak izateak arazoak ekartzen dituelako komunitate batean. Horrelako arazo batzuk ikusi ditugu, baina orain kitxua komunitate

gisa erregistratzeko asmoa dugu. Une honetan hausnartu, erabakiak hartu eta epe ertain-luzean gauzatu ditzakegun helburu zehatzagoak finkatzeko prozesuan gaude. Izan ere, hor gaude komunitatekook baina zer eskain diezaikegu gainerako pertsoneri? Zer koordinatu dezakegu gainerako erakunde eta ekimenekin?

Hirian egin dezakegun lanaz gain, aztertu nahi izan dugu komunitate berriak nola ahalbidetuko duen geure jatorrizko komunitateak indartzea, prestakuntza prozesuekin adibidez; edo komunitate honek nola lagun diezaguken gure jatorrizko komunitatera itzultzen.

Komunikazio arloko jendea izanda komunitatean, bereziki begiratzen duzuen esparrua al da?

Komunitatearen ametsetako bat bikoizketen munduan sartzea zen, komunitateko jende gehienak gizarte komunikazioak ikasi dituelako. Interes handia dago komunikabideetan eta uste dugu hori gure indarguneetako bat izan daitekeela, alor teknikoan hezitako jendea dugulako. Orain, gure beharra da hizkuntzaren arloan gehiago murgiltzea eta ikustea honek nolako estrategiak ekar ditzakeen, komunikabideen bidezko hizkuntza transmisioa, adibidez. Horiek dira gero-ko asmoak.

Garabide eta HUHEZlren Jatorrizko Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak tituluan parte hartzen ari zara beste hainbat komunitateko kideekin batera. Zein asmorekin hasi duzu graduondokoa?

Asmo asko ditugu eta aukerak ere bai, Euskal Herrira etortzeak erronka berriak bilatzea zekarrelako Quiton ezarri nahi dugun komunitatea indartzeko. Uste dut Euskal Herriak jarraitu duen prozesuak, hemen erabilitako tresnek eta estrategiek,

Babeslea: EMUN

emun
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA

HIZKUNTZA ZERBITZUAK KULTURA ZERBITZUAK ANIZTASUN ETA IMMIGRAZIO ZERBITZUAK PARTE HARTZE ZERBITZUAK

ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | DERIO
www.emun.com



hango eremu zehatz batean erabiltzeko adibide gisa balio dezaketela.

Bestalde, komunitate gisa han egin ditugun ekintzak partekatu nahi ditugu. Eta noski, baita titulazioan dauden gainerako jatorrizko herrien ezagutza jaso ere.

Aste batzuk daramatzazu hemen. Zerbaitek harritu al zaitu?

Nire kide bat hemen izan zen duela urte batzuk eta hari galdetu aurretik uste nuen kapitalismoa ez zen beste sistema bat zenutela hemen. Hizkuntzagatik hainbeste borrokatu duzuela ikusita uste nuen bestelako agertoki batean izango zela, komunitarioagoan. Kideak argitu zidan ez nuela uste bezalako sistemarik topatuko, hangoaren antzekoa zela hemen ere, sistema kapitalistagoa, europarragoa.

Hala ere, uste dut azpimarratu behar dena dela hemen jatorrizko herri bat izan zela eta dela, eta herri honek zerbaitegatik egin zuela borroka, hizkuntzagatik. Nahiko emaitza argiak jaso dituzue, euskara unibertsitatera heldu izana, adibidez. Quitoko unibertsitateetan ez dut

inor entzungo kitxua hitz egiten eta hemen, berriz, ikusten ditut gazte “modernoak” euskaraz egiten. Horrek ilusioa eta itxaropena pizten dizkit, “hori da nahi duguna” esaterainokoa. Baina nahi izateak nola egin pentsatzea ere badakar, guk kitxua gisa, komunitate-bizitzan, kapitalismoarekiko sistema ezberdinean pentsatzen dugu beti. Ez diot

“Quitoko unibertsitateetan ez dut inor entzungo kitxua hitz egiten eta hemen, berriz, ikusten ditut gazte ‘modernoak’ euskaraz egiten”

eredu ezkertiar edo eskuindar deitu nahi, niretzako gure erueda da, duela urte asko, espainiarrak heldu aurretik, existitzen zena eta oraindik landa komunitateetan mantentzen dena. Komunitatearen aldeko talde-lana (minga), trukea (makipura)... ezauzgarriok ez ditugu guztiz galdu eta

hauek erakusten digute ez daudela agintzen duten sistema jakin batzuk bakarrik, baizik eta baita beste sistema komunitario batzuk ere, gureak, berriro gogora ekarri behar ditugunak eutsi eta indartzeko.

Hainbat leku eta proiektu ezagutzen ari zarete.

Aurreko batean Tafallan izan ginen, ikastolan, eta oso polita izan zen ume txikiak euskaraz hizketan ari zirelako. Ekuadorren oraindik ez dugu lortuko azpiegitura horiek dituen eskola bat sortzea, baina has-teko, etxe txiki batean umeei kitxua erakutsi ahal izango diegu.

Badut lehengusu bat bost urte bete arte kitxuaz bakarrik egiten zuena, eskolara joan zen eta irakasleak, nahiz eta bera ere indigena izan, esan zion eskolan ez zuela kitxua hitz egin behar, espainiera baizik. Umeak jada ez du kitxua hitz egiten eta guk kitxuaz egin arren, berak espainieraz erantzuten digu. Hemen, berriz, euskaraz hitz egitera bultzatzen dituzte eta barruan geratzen zaizkizun esperientzia horietako bat da.

Esperientzia hau, beraz, aurrera egingeko lagungarri zaizue.

Hizkuntza suspertzeko gai honetan denaren gainetik gure ibilbide historikoa dago. Horrek ahalbidetzen digu aurrera begiratzea, karga historikoko horrek bultzatzen eta behartzen gaitu, eta gure komunitatea eta hizkuntza aldarrikatzen jarraitzeko erantzukizuna ematen digu. Gure gurasoek, aiton-amonek, ahal zuten dena egin zuten guk hezkuntza eta orain ditugun bestelako bizi baldintzak izateko. Ez denek, baina hezkuntza bat jaso dugunok nahi dugu orain hezkuntza hori gure ikuspegitik eta gure hizkuntzan emandakoa izan dadin. Gure aurrekoek ez zioten inoiz utzi euren hizkuntza hitz egiteari nahiz eta 500 urte baino gehiagoko kolonizazioa bizi izan. Orain gu gara lekukoa hartu eta eurek hasitako lanarekin jarraitu behar dugunak. Gure erantzukizuna da, bete beharra, ez gara hizkuntzari mesede bat egiten ari baizik eta hizkuntzak ematen digu hau, gure aurrekoei egingandako ahalegina itzultzeko aukera. ■



Webguneak euskaraz dituzten enpresa gehienak Debagoienan daude

EUSTATEK ESKAINITAKO datuak dira. Hamar langile edo gehiagoko zenbat enpresek webgunea euskaraz daukaten neurtu du EAEko Euskal Estatistika Erakundeak. Euskal Autonomia Erkidegoan, batez beste, enpresen %44,8k dute euskaraz. Probintziei begiratuz gero, Gipuzkoan batez bestekoa %59,4 da, Bizkaian, %38,9 eta Araban %32,8.

Eskualdeei dagokienez, Gipuz-

koakoak dira nagusi: Debagoiena (%74,8), Goierri (%65,8) eta Urola Kosta (%63,5). Bizkaian batez besteko altuenak dituztenak Gernika-Bermeo eta Markina-Ondarroa dira; lehenengoak %54,8 eta bigarrenak %53,6. Araban, Arabako Mendialdean enpresen %49,1ek dute webgunea euskaraz.

Hiriburuetako datuak berriz ondokoak dira: Donostia (%63,0), Bilbo (%42,4) eta Gasteiz (33,4).

Bahea

Elixabete Garmendia EITBko kazetariak Euskonews & Median esanak:



JUDIT FERNANDEZ

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Tubacex, “bake sozialaren” bila

ALTZAIRU HERDOILGAITZEKO hodiak egiten dituen eta arlo horretan munduko produktore nagusienetakoa den Tubacex enpresa arabarrak, akordioa sinatu du Kantabriako Gobernuarekin, Santander ondoan dagoen Marina de Cudeyo herrian lantegi berria eraikitzeko. Egoitza duen Aiala haranetik 100 kilometroa, Araban fabrikatzen dituen hodien eraldaketa prozesuari ekingo dio Tubacexek. Enpresa berriak haran horretako langabezia arintzen lagundu zezakeen, EAEkoaren batez bestekoa baino larriagoa baita. Konpainiaren egoitza soziala Laudion dago eta %20,5eko langabezia tasa dute han. Ez daki gu zenbat lanpostu sortuko diren, baina badakigu Tubacexek Marina de Cudeyon 10.000 metro koadro erosi eta 37.000 metro koadro erreserbatu dituela.

Zergatik aukeratu du Tubacexek Kantabria? Diotenez, Kantabriako Gobernuak lurra merke eskaini dizkio, eta sindikatuekin “bake soziala” agindu dio, baita Arabakoak baino soldata baxuagoak ere. Tubacexek soldata kostuak murriztu eta lan-gatazkak saihestu nahi ditu nola edo hala.

Lakuako gobernua, neoliberalismoaren kudeatzaile den neurrian, Enplegu kontseilariaren ahotik zera esan du: “Euskadik erakargarriago izan behar du Tubacex moduko kasuak ez errepikatuzko”. Eta honakoa gaineratu du: “Lan-gatazkak txarrak dira ekonomiarentzat, enpresentzat, baita langileentzat ere”. Hau da, “Euskadi erakargarriago” egiteko, langileek ez lukete protestatu behar, ez aldarrikapen edo grebarik egin behar ere, eta klase kontzientziari uko egin beharko lioke. Eta sindikatuek “bake soziala” bermatu behar lukete. Edozein egunetan Tubacexek Aialako instalazioak desegingo ditu –metro koadro askotxo aurreikusi du Kantabrian– eta errudunak langileak izango dira gainera! Erruduna kapitalismo basati eta harrapakaria da, ahalik eta kostu gutxienarekin etekin handiena nahi baitu. Eta horretarako “bake soziala” izateko bermea eskatzen du... Hilerrietan baino ez dago hori!

Juan Mari Arregi



“EitBren jarrera nagusia gaztelaniazko katearen aldekoa izan da beti, bi kateak presente egin zirenetik, orain arte izan diren zuzendari guztiek ETB1en inguruan hitz arranditsuak bota dituzten arren, aurrekontuen portzentaje eta zenbaki ulertezinak tarteko. Ziurrenik, euskarazko inbertsioetako dirurik handienak futbol partiden eskubideak erosten xahutuko ziren!

Euskal telebista izena daraman medio batean lan egiten baduzu, nahiz eta gaztelaniazko katean izan, nola bete dezakezu ondo lana euskarak berarekin daramatzan jakintza eta kultura ulertzeko gai ez bazara? Planteatuko al litzateke TVEn kazetariak espainiera ez jakitearen buruga-bekeria? Bada, hori ETBko zuzendari-tza guztiekin jazo da. (...) Ez dago pre-siorik euskara jakin gabe sartu den pertsonala euskalduntzeko”.



Tolosako Babarruna



Hoberenak soilik aukeratzen ditugu

☎ 943 650 253
www.tolosakobabarruna.com

Egin dezagun otoitz Fukushiman pizina husten asma dezaten

Azaroan ekin behar diote TEPCOren langileek Fukushima Daiichiko 4. erreaktorearen erregai biltegia husteari. Lurrikarak birrindutako eraikinean bi urte eta erdiz goiti egoera tamalgarrian edukitako erregaiok leku seguruago batera eramateko lanak oso izango dira konplexu eta arrisku handikoak. Mundu osoak egon behar luke haiei so.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

KATASTROFISMOAN ERORTZEA DA Fukushima-koen berri ematen ahalagintzen den kazetariaren arrisku bat. Bestea, eta okerragoa, TEPCO korporazioaren desinformazio operazioei alferkeriagatik oihartzun eginenez jardutea. Asmo ona ez da aski lan txukuna lortzeko.

Urriaren 26-27ko astebururako zikloi bi iragarri ziren Japonia inguruetan aldi berean, *Francisco* eta *Likema*. Inork gutxi egin zien jaramonik Europatik. Esajeratu egin zuten alerta piztu zutenek? Kontsolamendu tristea, justu egun beretan 7,6 graduko lurrikara gertatzea bertan. Apenas aipatu ere egin duten hemengo hedabide nagusiek, tar-tean gurek.

Zer izango zen Euskal Herrian 7,6ko terremoto bat jazo balitz? Azken urteotako famatuena, 1967an Zuberoako Basaburua eta Biarnoko Baretose hondatu zituen, 5,5ekoa izan omen zen Richter eskalan. Lehendik aurrietan dagoen Fukushima Daiichiko zentrolean ez ote du eraginik izan 7,6ko batek?

Hamar egun lehenago, urriaren 15ean, *Wipha* tifoia astindu zituen Japoniako bazter asko, Izu Oshima uhartean eginez kalte handienak. Haren berri aurretiaz eman duten kazetariak ez dute katastrofismorik egin. Fukushima ez du haizeak gehiago birrindu, baina berandua-

go, asteak pasa ahala, hedabide nagusiek letra xeheagoetan azaldu dute euriteek eragin dutela kutsadura gehiago itsasoratzea, tankeek gainez eginda. Hamabost egunen buruan, soilik istripu nuklearraren jarraipen zehatza egiten saiatzen direnek jakin dute luiziak ere gertatu zirela zentrolean.

Egunokaz, azaroan, Fukushima zentral nuklearra sartzen da aro bereziki arriskutsuan. *Rebelión* gune ezkertiarrean arrisku atomikoen jarraipena egiten duen Salvador Lopez Arnalek titulatu du berea: “*Japón-Fukushima. Ubicados en el borde de un abismo apocalíptico*”. Alerta jaurti ote genezake paper-saskira katastrofista dela esate erosoarekin?

Asko daude oso kezkatuta azartatik aurrera gutxienez urte betez Fukushiman burutuko den operazioarekin. Ez soilik nuklearrak kezkatzen dituen militanteak, atomoarekin lan egin duten adituak ere bai.

Fukushima Daiichik zeuzkan lau erreaktoreetatik hiruk eztanda egin zutenean —oraindik ez dakigu beren barne-muinak nola dauden, sa-belean zeukaten uranioa osorik edo hein batean urtu ondoren non dagoen, ez nola, ez zerekin nahastuta—, laugarrenak aurreko urteetan erabilitako erregaia biltegi batean geratu zen babesik gabe. Paradoxikoki, geldirik zegoen erreaktore

Fukuleaksetik eskuratutako argazkiak erakusten du Fukushima-Daiichiko zentralaren laugarren erreaktorea. Goiko parte kolore argikoa eta eskuineko egitura grisa, horixe da erregai erabilia lekualdatzeko hilabeteotan eraikitakoa. Garabi erraldoiaren paretik ezkerrera doana da eraikin birrindua; barruan dauzka erreaktorearen galdara, istripuaren egunean hutsik zegoena, eta justu garabiarren parean dago dioxosozko biltegi edo pizsina, galdaratik ateratako 400.000 kilo erregai erabili (uranio, plutonio eta beste gai oso erradiaktiboz osatuak) beste norabait eramateko zain zeuzkatena. Lurrikarak erortzeko zorian utzi zuen laugarren solairuan dagoen putzu hori, ura galduz, hotzik atxikitzeko arazo handiekin. Lurraren astinduekin, gainera eroritako zakarrekin eta urmaelak behin baino gehiagotan irakin duelako, erregaia osatzen duten hagak oso egoera txarrean daude, lekualdatzea zailduz.

bakarrak utzi digu txarren artean oparirik gaiztoena.

Orain ordua heldu da hilabeteotan airean kasik zintzilik egon den biltegi edo pizsina suntsitu horretako erregaia atera eta gordeleku hobera lekualdatzeko. 400 tona erregai usatu oso erradioaktiboak, banan bana eta tentu handiz mugitu behar diren 1.300 barratan banatuta, *Common Dreams*en idatzi duen Andrea Germanosen kalkuluetan Hiroshimako bezalako 14.000 bonbak leramaketan erradiazioa daukatenak.

Fida gintezke TEPCOz?

Bi urte eta erdiotan, Japoniako eta munduko mobilizazioek zirikatuta, TEPCOk antolatu du eraikin berria 2011ko martxoaren 11an suntsitutakoaren aldamenean. Egunotan hasten duen operazioa honela laburbildu du *Japan Times* egunkariak: erregai erabilia daukaten barrak ateratzeko TEPCOk eraiki du 284 tonako garabi mugikorra, aldameneko sala batetik gidatuko dena. Dauden lekutik banan banan aterata, altzairuzko ontzi handi zamatsu urez betean laga behar ditu, lurrerraino jaitsirik beste biltegi batera eraman ditzaten.

Ez da kontu erraza izan. *Fairewinds* gunean Fukushima-koen jarraipena egiten duen Arnie Gun-



bere kasa. “Lan honi ezin zaio aurre egin ez bada munduko zientzialari eta ingeniari onenekin, haien eskura jarririk behar dituzten diru guztiak”.

Fukuleaks izenpean Fukushima-koaren jarraipena elkarlanean egiten dutenek azpimarratu dituzte bertan ari diren langileek berek sortuko dituzten arriskuak. TEPCOk lanok kontratei utziak dauzka aspaldi, horietan ari direnek ordutegi oso luzeak dauzkate eta formazio tekniko mugatua. Hasieran aritutako teknikari berezienak ezin dira zentralera hurbildu, gehieneko erradiazio dosi onargarria aspaldi gainditurik. Meteorologia aldetik ere, baldintza gogorretan jardun beharko dute.

Ororen buru, mundua ondoko hilabeteetan begira egongo zaio inoiz planetak ezagutu duen operaziorik konplexuenetako bati, zeina burutuko baitu koste ekonomikoak murrizteko logikan errukirik gabe dirauen konpainia pribatu batek, zentral atomiko bat Japonian ohi-koak diren lurrikareei eta tarteka jazotzen diren tsunamiei aurre egiteko babesik gabe eraiki zuen konpainiari berari.

Japoniako Gobernuak men egiten dio TEPCOri. Urriaren 27an *Asahi Shimbun* egunkarian Shinichi Sekine eta Toshio Tadak plazaratu dute joan den otsaileko agiri batean Tokyoko gobernuak TEPCOri onartu diola Fukushima eskualdeko garbiketa lanak ez ordaintzea, deskontaminazio gastuak herritarrei kobratu zergen bizkar utziz: “Konpainiak uste du oso zaila zaiola pagatzea”. Nuklearren kontabilitate bitxia. ■



dersen ingeniari beteranoak, hainbat zentral atomikoren kudeaketan arituak, abisatu du zailtasunak aurkituko dituztela barrak ateratzeko, laster hasiko garela entzuten barra bat bat hautsi dela, gero beste bat, gas erradioaktiboa isuri dela, eraikinetik alde egin behar izan dutela langileek...

Inork ez baitaki zein egoeratan dauden barra horiek. Eraikina birrindu zenean, egonkortzeko obrekin uretara zakarrak eroriko ziren beldurrez estalki batez ezkutatu ziren, geroztik inork ez ditu bere begiz ikusi. Istripuagatik urik gabe geratuta pizkina irakitera iritsi zenean, barrak deformatu egin ziren, beroarekin eraldatu, haiek lotzeko edo sartzeko bezala atera-

tzeko tresneriak urtu eta okertu zitzaizkien.

Erregai-barrak hotzik atxiki behar dira eten gabe, agerian gertatuz gero, zirkoniozko azala kiskaltzen hasten zaie, barrek su hartzen dute eta erradioaktibitate kopuru itzelak isurtzen. Elkar ukitzen badute, edo altuera batetik erortzen, lehertu daitezke. Kasurik txarre-nean jarrita, pizkina amilduko balitz 400 tona horiek agerian utzi eta pila erori araziz, 2011ko martxoaren 11koa baino leherketa handiagoa eragingo lukete.

Horregatik esan du Harvey Waserman AEBetako antinuklear eza-gunak operazio hau guztia ez zaiola utzi behar TEPCOri burutzen, ezta Japoniako Gobernuari berari ere





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Espiritu kooperatiboa

FAGOR ETXETRESNEN eta Mondragon Korporazioaren arteko eztabaida eta tira-bira gogorak sumatu dira Etxetresnetakoen adierazpen eta albiste jarriotik. Korporazioa isilik da. Arrazoia nork duen alboratuz, ezin bestela izan, normala delako hondoratzea doanak arnasa hartu nahi izatea kosta ahala kosta, eta laguntza gehiago ukatzen duenak ere bere burua arriskuan jarri nahi ez izatea. Iraganean ondo egin ez denak ez du bapateko konponbiderik.

Orain hiru lan garrantzitsu geratzen dira: azken unean jarduerarik salba daitekeen ikustea; zauriak ahalik eta eraginkorren sendatzea; eta korporazioko beste enpresei gauza bertsuak gerta ez dakien hausnarketa ahalik eta sendoen egitea. Arrasateko kooperatibetan eta, oro har, ekonomia sozialean ari garenontzat ikasgai garrantzitsuak izango dira. Hainbat esparru nabarmentzen ari dira asteotan, gehienak lanpostuak, finantzazioa eta kudeaketari lotuak, azken hauek erantzukizun bila gehienetan. Baina zirrikituetatik, eta hainbat elkarrizketa eta iritzitan, sumatzen dira sakonagoko zuloak ere, esate baterako, ditxosozko espiritu kooperatiboari dagozkionak.

“Baina zer espiritu kooperatibo eta zer demontre, hor kudeaketa akats batzuk egon dira eta listo, enpresa kapitalistan edo kooperatiboan berdin-berdin eman daitezkeenak”. Eta esan liteke hori, duda barik, baina teoriarik hori da kooperatiba eta elkarte anonimoaren arteko bereizgarrietakoa, bote-rearen erabilera eta kudeaketa ere desberdinak direla, hasi karguen hautaketatik eta erabaki potoloe-netaraino. Eta akatsak akats, Mon-

dragoneko esperientzia luze eta zabalean horrek funtzionatu izan du eta funtzionatzen du. Hori guztia ez da gezurrezkoa izan Fagor Etxetresnetan, ezta gainerako kooperatibetan ere, nahiz eta denetan ere gobernantza egoera oso desberdinak dauden.

Azken 15 urteetan Arrasateko kooperatibetan eztabaida handiak izan dira espiritu kooperatiboaren galeraz. Mondragoneko goreneko organoetan onartuta dago galera hori, oinarritzko kooperatibisten artean baino gehiago seguruenik, eta hortik ezin dela onik etorri ere bai. Etxetresnen hondoratzean, esaterako, izan al du eragirik horrek? Nola neurtzen da hori? Nork? Nola hartu zuten

Boterea eta kudeaketa estuki lotuta daude, eta ohiko kudeaketan parte hartzen ez duen kooperatibismoaren etorkizunak jai du

parte Fagorreko kooperatibistek Brandteko erosketan? Zergatik ez zuten erabaki kooperatibistek lehenago birmoldaketa sakonagoa? Proposatu al zitzaizkien? Ba al zuten kooperatibistek gutxienez masa kritiko esanguratsu batekin nahikoa informazio eta hezkuntza hortaz egoki erabaki ahal izateko? Milaka lagunekoa kooperatiba batean posible ote da oinarritzko langile kooperatibistek horiek erabaki ahal izatea? Edo Arantza Tapia sailburuak dioen gisan, gobernantza aldatu behar da eta listo? Erabakiak azkar hartzen dituzten multinazionalak ez ote dira hondoratzen? Azkar ondo al da? Ondo norentzat? Bistan da nahi adina galdera direla,

egin beharrekoak gainera. Bistan den moduan, erantzunak ere hainbat direla eta oso desberdinak gainera kooperatibismoarekiko sentsibilitatea eta sakontasuna bat izan hala beste bat. Hondoratzearen ondorioetan ere desberdina den moduan, jadanik Mondragonen askotan ikusi den moduan, eta Fagorreko krisian ere ikusiko den gisan.

Horregatik da giltzarri etorkizuneko kooperatibismoarentzat espiritu horren galeran arakatzea eta hausnartzea. Eta gaitza da. Besteak beste, krisi sasoian krisitik ateratzea delako garrantzitsuenak, eta horretarako funtsezkoena ondo produzitzea izaten delako, lehiakor izan ahal izateko, bizi-raun ahal izateko. Nola uztartu kooperatibistaren formazioa eta produkzio denbora?


Ez da hausnarketa samurra, baina egin beharrekoa eta sozializatu beharrekoa gainera, kooperatibismoari eutsi nahi bazaio behintzat.

Boterea eta kudeaketa estuki lotuta daude, eta ohiko kudeaketan parte hartzen ez duen kooperatibismoaren etorkizunak jai du. Kudeaketa kultura modernoek indar handia jarri izan dute horretan, langileen parte-hartzean, enpresa norberarena sentitzean, eta produkzioari dagokionez behintzat emaitza onetako da. Ez da eraginkorra emaitzen banaketari dagokionean, hor kapital gehien duenak eramaten duelako gehien. Kooperatibismoak eta ekonomia sozialak hiru osagai klabe uztartzeko aukera eskaintzen dute: kapitala, botere banaketa eta kudeaketa. Aukerak badira, baliatu egin behar. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Bertsolari Txapelketa Nagusia



2 harpidunentzat
bina sarrera

Azaroak 16, larunbata 17:30ean
Elorsoro kiroldegia
Oñartzun (GIPUZKOA)

www.bertsozale.com

1

Bertsolari Txapelketa Nagusia



2 harpidunentzat
bina sarrera

Azaroak 17, igandea 17:30ean
Palatu kiroldegia
Murgia (ARABA)

www.bertsozale.com

2



Donostiako Aquariuma



4 harpidunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

3

Bilboko Euskal Museoa



3 harpidunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

4



Okatxu

2 komiki opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2388. Argia)

BILBOKO KAFE ANTZOKIA

• Arrate-Aginagako Zaharren Egoitza (Usurbil)

EKAINBERRI

- Azpeitiko Udal Liburutegi Publikoa (Azpeitia)
- Patxi Xabier Gonzalez Sanz (Gasteiz)
- Andoni Sarriegi Eskisabel (Beasain)

ARTIUM Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

- Elixabete Perez Gaztelu (Oñartzun)
- Roberto Kerexeta Zulaika (Elgoibar)
- Jose Garaizabal Aizpurua (Elorrio)

BIDE ERTZEAN -77- CDa

- Iñaki Mundiñano Larrazza (Etxarri-Aranatz)
- Miren Olabarria Arana (Bergara)
- Mayi Iza Agirre (Hondarribia)
- Josune Arandia Belaustegi (Lemoa)
- Iñaki Osoro Otardui (Eibar)
- Lorenzo Zubeldia Aierbe (Lizartza)

BADAKIT mahai jolasa

- Karlos Zarraga Ellakuria (Zaratamo)
- Hilario Berasategi Arrieta (Idiazabal)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

guinea

argia



argia 2014ko egutegia

- Zientzia eta teknologia
- Txistak
- Denboraren makina
- Bertsoak
- Ezagunek esanak
- Euskara "xuxenean"
- Mikro-ipuinak
- Santuak
- Euskal izendegia
- Eguzkia, ilargia eta mareak



EGUTEGIA

9€

EGURREZKO
TAULA

50€

egutegia opari



BURNIZKO
EUSKARRIA

5€

Salgai dagoeneko!